

ek!

...eta kitto!

Euskara Elkartearen astekaria

2020ko uztailak 24 • 1152. zenbakia

HERRIAREN ERANTZUNARI ESKERTUTA



Recalde

Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinika

Miopia ebakuntza, kataratak
eta presbiziaren kirurgia



Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 844 • www.clinicarecalde.com



Informaticando

KARTELERIA DIGITALA

ZURE NEGOZIOAREN IRAGARKIA
EIBAR, ELGOIBAR ETA DURANGON



943 15 06 22

WWW.INFORMATICANDO.EUS



DENON ARTEAN LORTUKO DUGU ANIMO DENORI!

...eta kitto!-ren
itzulpen
fzu, tzu, tzu
zerbitzua



ERA GUZTIETAKO
TESTUAK
ITZULTZEN
DITUGU,
euskaratik
gaztelerara,
gazteleratik
euskarara,
eta ingelesetik
euskarara.

- Urte askotako
ESPERIENTZIA dugu.

- Bezeroaren
beharretara
EGOKITUZ.



elkartea@etakitto.eus



Komunikabideei zorrotasuna eskatzen

Aurreko uztailaren 12an DV-k, Gipuzkoan oihartzun handien duen egunkariak, Debabarreneko edizioan Iñaki Garcia nire izenarekin sinatutako eskutitza kaleratu zuen (paperezko edizioaren argazkia doakizue). Hori ez zen kointzidentzia hutsala besterik izango, hain arruntak diren izen eta abizena tartean izanda, ez balitz enteratu naizelako komunikabide horretako Eibarko korrespontsalaren eskuetara heldu zen eskutitzak nire NAN zenbakia zeramala. Indarrean dagoen legediaren arabera: nortasun-ordezpena eta datu pertsonalen okerreko erabilera.

Aipatutako komunikabidearekin harremanetan jarri naiz (bertako erredakzioarekin, eta kopia bidalita Eibarko korrespontsalari), euren profesionaltasun-eza salatuz eta zuzenketa bat eskatuz. Baina, herri mailan duzuen hedapen handiari begira, zuei ere jakinarazi nahi izan dizuet. Kezkagarria da oso "prentsa donostiarraren dekanoa" denak (harrotasunez diote eurek) eta Gipuzkoan tirada handiena duenak eskutitzak alegereki kaleratzea euren egiletzari buruzko gutxieneko egiaztatzerik egin barik, gaur egun zailtasunik ez duen neurri hori hartu barik. Egiaztatze hori behar-beharrezkoa da, teknologia berriekin edozein iritsi daitekeelako nireak moduko datu pertsonaletara (Internet-en eskuragarri klik batekin) eta gero maltzurki erabili, hirugarren bat deskalkifikatzeko, oraingoan gertatu moduan. Gaur egun beste baten lekua hartzeko dagoen erraztasun horren aurrean komunikabide zorrotzek kontrol handiagoa ezarri beharko lukete, duten erantzukizun sozialaren eta hor kale egiteak izan ditzakeen ondorioen jakitun.

Herri komunikabide moduan, azalpen hau kaleratzera animatzen zaituztet, egia argira atera eta, ahal den neurrian, herri mailan manipulazio jokaldi zikin horrek izan ditzakeen eragin kaltegarriak neutralizatzeko bidean. Adeitasunez,

Iñaki Garcia Borrego (Madril)

Oharra

Esku artean duzuen alea ikasturteko azkena da. Hurrengokoa irailaren 4an, barixakuan, kaleratuko dugu. Ordura arte, ondo izan.

Erredakzioa

"Euskal Herriko arte-bildumatzaileren profila aldatu da azken urteotan: orain urte gutxira arte helduak ziren batez ere, 60 urteren bueltan zebiltzanak, baina orain gazteagoak dira, 40 urte inguruko profesionalak, aurreztutako zati bat artea erosteko gordetzen dutenak, eta ez gero dirua irabazteko, baizik eta arlo hori gustatzen zaielako. Madrilen eta Bartzelonan 'Sorolla' bat bere enpresa saldu eta beste gauza batzuetara dedikatu nahi duen enpresariak erosiko dizu; Euskal Herrian eroslea selektiboagoa da, kriterioduna, Frantzian bezala. Oteizak, XX. mendeko talentua izanda ere, arte merkatuan ez du kulturaren duen prestigioa. Hemendik 40-50 urtera bere lanen prezioa ehun aldiz handiagoa izango da; gaur egungo egoerak gerizpean du haren lana".

ROCIO PARRONDO, galerista

"Gaur egun Gaztela-Leonen gertatzen dena Espainiako hainbat tokiko adibidea da. Eskola maila handiko gazteria dago eta, ikasi dituen abileziak ezin baditu garatu bere ingurunean, emigratzea besterik ez zaio geratzen. Gehiengoa Madrilera joango da, Bartzelona eta Valentziarekin batera unibertsitate tituludun gehien batzen dituen hirira. Egoera horrek herri txikietako jaiotze-tasak hondoratu ditu eta ezkongabetasuna ikaragarri hazi, emakumerik ez dagoelako. Azken hauek bizitza esklabotik eta jardunaldi bikoitzetik alde egitea erabakitzen dute; lana automatizatuta ere, goizetik lana eruz egin behar dutelako. Landa-eremuan, gainera, berdintasunak nahiko oztupo izaten ditu. Ingurune horietan gizonezko gehiago dago, baina ez emakumeentzako desiragarrienak bereziki, asko gainera adinekoak. Horregatik, azken belaunaldietako %30-40 inguru ez da ezkontzen".

JOAQUIN RECAÑO, ikertzailea

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

NABARMEN.- Lotsaria. "Zapatuetako mozkorrak, herrixan nabarmena". → Argi eta garbi. "Dolarra nabarmen igo da azken aldian".



Euskara Elkarte

ARGITARATZAILEA
...eta kitto! Euskara Elkarte

HELBIDEA
Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK
943 20 67 76 / 943 20 09 18
603 598 285

FAXA 943 20 28 72
ASTEKARIAREN E-MAILAK
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK
elkarte@etakitto.eus
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA
Ana Aizpurua, Itziar Albizu,
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi
eta Silbia Hernandez

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Maku Oruezabal

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekaria

ARGAZKI ARLOA

Malen Jainaga eta

Malen Illarramendi

HIZKUNTZA ARDURA

Juan Andres Argoitia eta

Maider Aranberri

PUBLIZITATEA

Itziar Albizu eta Belen Ulazia

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA

Silbia Hernandez

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.780 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)





Hasi dituzte Errebal kalea urbanizatzeko lanak

>>> Astelehenean hasi zituzten Errebal kaleko urbanizazio-obrak. Udaletik jakinarazi dutenez, Arragueta eta Arikitzaneko zubiaren arteko bidegurutzetik hasita, espaloiak zabaldu egingo dituzte, Julian Etxeberriara kaleraino doan zatian. Gainera, galtzadaren mailarekin parekatuta lagako dituzte, “koexistentziako kaleen antzeko tratamendua” emanda.

Lanean ari diren bitartean Errebal inguruan aparkaleku batzuk kenduko dituztenez, Bittor Sarasketako orubea behin-behineko aparkaleku bilakatzeko lanak hasi dituzte. Obrak urte honen hasieran adjudikatu zitzaizkion Otegi y Gaztañaga SL elkarteari, 717.102 euroren truke. Lanak hasi eta amaitzeko aurreikusitako exekuzio-epa 26 astekoa da.

COVID-19tik eratorritako krisi ekonomikoa arintzeko laguntza berriak onartu ditu Eusko Jaurlaritzak

>>> Aste honetan jakinarazi dutenez, Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluak laguntza berriak onetsi ditu COVID-19tik eratorritako krisi ekonomikoa arintzeko. Batetik, Gobernu Kontseiluak laguntza-lerro berri bat onartu du “Covid19 Aparteko Funtsaren” barruan, krisi sanitarioari eta ekonomikoari aurre egiteko; zehazki, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sarearen ikerlana sustatzeko laguntzak dira, koronabirusaren aurkako borrokarekin lotutako 14 proiektu babesteko. Josu Erkoreka bozeramailearen berbetan, “ikerketak zeregin erabakigarria betetzen du krisi honetan eta zehaztu egingo du, neurri handi batean, datozen hilabeteetan euskal gizartean gertatuko dena”. Ildo horretan, ikastaro, jarduera eta kongresu zientifikoak antolatzeko laguntzak emateko programa bat baimendu dute urte honetarako Bestalde, Gobernu Kontseiluak baimendu egin du Osakidetzak jardutea “erosketa, biltegitratze



eta logistikarako zentral” gisa. Beraz, hemendik aurrera hemendik aurrera, Osakidetzak arduratuko da materiala erosi eta hornitzeaz (guanteak eta maskarak, besteak beste) Eusko Jaurlaritzaren, Foru Aldundien eta Udalen menpeko diren erakunde guztietan. Erkorekak dioenez, zentral bakar horrek eraginkorragoak izateko aukera emango du eta euskal sektore publiko osoaren premiei erantzun ahal izateko lagungarria izango da.

Zabaldu dute Kirol Patronatuaren jardueretarako izen-ematea

>>> Udal Kirol Patronatuak 2020-2021 ikasturtean antolatuko dituen jardueretan parte hartzeko izena emateko epea zabalik dago, eta interesatuek eskabidea bete beharko dute, www.eibarkirola.eus webgunearen bitartez. Ikastaroak irailaren 14an hasiko dira.

Hala ere, haurren igeriketa ikastaroen kasuan, aurre izen-emateak egiteko epea abuztuaren 20ra arte egongo da zabalik. Ondoren, abuztuaren 27an zozketa egingo da, eta egun bat geroago, hilaren 28an, egingako zozketa Patronatuaren webgunean bertan argitaratuko da. Kasu honetan, izen-



emateak irailaren 5etik aurrera egin beharko dira (telefonoz: 647 870 751), eta ikastaro horiek urriaren 1ean hasiko dira. Eskainiko dituzten jarduera guztiei buruzko informazioa interneten dago.

Aldi baterako erregulazioetarako laguntza laster eska daiteke

>>> Enplegua aldi baterako erregulatzeko espediente batean dauden langileen soldatak osatzeko Eusko Jaurlaritzak emango dituen laguntzak datorren astetik aurrera eskatu ahal izango dira. Hilean 1.666 eurotik beherako kotizazio oinarria edo urtean 20.000 eurotik beherako soldata gordina duten langileek jasoko dute

osagarria eta gehienez 150 euro izango dira. Eusko Jaurlaritzak 15,4 milioi euro erabiliko ditu horretan eta 40.000 pertsona ingururi eragingo die. Lanbideren arabera, aldi baterako erregulazioan egondako langileen %40 inguru zeuden egoera horretan ekainaren amaieran Laguntzak Lanbideren webgunean eskatu ahal izango dira.



Epaileak Bilbeando zigortu du, bidegabeko kaleratzeagatik

>>> LAB sindikatutik jakinarazi dutenez, Eibarko epaitegiak bidegabetzat jo du Bilbeando enpresak 2019ko urrian egindako kaleratzea eta kaleratutako beharginari dagokion kalteordaina ordaintzeko agindua eman du epaileak. Sindikatuek azaldu duenez, "2019ko urrian Bilbeando enpresak Beatriz Barrios langilea kaleratu zuen despido disziplinario baten bitartez. Gezurretan oinarritutako arrazoiez josi zuten kaleratze gutuna: bere lana ondo betetzen ez zuela erabili zuten argudio nagusi bezala. 17 urte

beraieztat lanean egon eta gero!"

Hasieratik, langilea kaleratzeko arrazoiak oso bestelakoak zirela salatu zuten sindikatutik. Lan baldintza "prekarizatuetan" ari zirela salatu eta lankide batzuei hauteskunde sindikalak egiteko beharraz berba egiteagatik kaleratu zutela diote. Harrezkero hamaika kontzentrazio egin dituzte Urkizuko denda aurrean, lan eskubideak errespetatzea salatzen eta langilea berriz onartzea eskatzeko eta epaitegiaren erantzunarekin pozik daude".

Biodibertsitateari buruzko sei elkarrizketak online ikus daitezke

>>> Eibarko Udalaren Ingurumen Jardunaldieie agur esateko, astelehenaz geroztik eskuragarri dago Lorea Arakistain kazetariak zuzendu dituen sei elkarrizketatik azkena, www.eibar.eus web-orriko Ingurumen atalean eta Eibarko Udalaren YouTuberen kanal ofizialean. "Krisi sozioekologikoaren islararen aurrean" izenburuari jarraituta, Ikerbasqueko ikertzailea den Unai Pascualek gaur egun bizitzen ari garen krisi sozioekologikoari aurre egiteko, gizakiak naturara birkonektatzeko duen beharraz egiten du berba, besteak beste. Pascualekin

egindako elkarrizketaz gain, aurretik beste aditu batzuekin egindakoak ere ikus daitezke: Asier Sarasua biologoak Eibar inguruko txoriei buruz egiten du berba, Miren Bego Urrutia. EHUKO irakasleak animalien moldatzeko gaitasunaz, Urdin Elortzak Gipuzkoako eta Debabarreneko mendi ibilbideen berri ematen du, Agurtzane Etxaniz Debemeneko zuzendari orokorrak baserritarren garrantziari buruz dihardu eta Asier Hilario geologoak, berriz, Debabarreneko ondare geologikoari buruzko azalpenak ematen ditu.



PUBLI RESA
objeto publicitario

- merchandising
- serigrafia
- lanerako erropa

publiresa@publiresa.com 943 701 497 / 615 799 419

Armagin, 3-5 beheak

FUNEUSKADI
Grupo Asista

FUNERARIA MUGICA
Funeruskadi

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

Eibar: Otaola, 27	Elgoibar: Xixilion, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)
Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20	Ermuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 16

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao
Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao



Verter Recycling-eko hiru goi-kargu atxilotu dituzte

>>> Martitzen arratsaldeko azken orduan jakin genuenez, Jose Ignacio Barinaga Zaldibarko zabortegiko jabea, Arrate Bilbao kudeatzailea eta Juan Etxebarria ingeniaria atxilotu ditu Ertzaintzak eta atzo ziren epailearen aurrera deklaratzera eramatekoak. Hala ere, atxiloteten inguruan nahasmen handia sortu da, hasieran epaileak agindu zituela esan arren, enpresako ordezkariak eguazten goizean hori ukatu zutenean. Komunikatu batean atxilotetak “poliziaren erabakiz” egin eta “legez kanpokoak” direla adierazi zuen Verter Recycling-ek. Handik gutxira, Segurtasun Sailak azalpenak emateko oharra zabaldu zuen, auzian eskumena duten epaitegiek eta Fiskaltzak hiru pertsona horiek atxilotze-

ko baimena eman zutela esaten eta atxiloteten inguruan “gaizki-ulertua” gertatu dela gaineratuta.

Verter Recycling 2002 SM enpresaren zabortegia otsailaren 6an amildu ondoren, balizko bi delitu ari dira ikertzen Durangoko epaitegian: Durangoko Instrukzioko 1. Aretoa langileen eta pertsonen kontrako deliturik ba ote den ari da ikertzen eta Instrukzioko 2. Aretoa, berriz, ingurumenaren kontrako deliturik ba ote den. Kasu bakoitza epaile batek darama.

Zaldibar Argitu plataformak atxilotetem inguruko adierazpenak egin ditu: “Laster 6 hilabete beteko dira eta, berandu etorri den arren, guretzat berri ona izan da. Erantzukizunak ar-

gitzeko bidean urrats bat eman dela uste dugu eta mugimendu hau beharrezkoa zela iruditzen zaigu”. Hala ere, plataformako ordezkarien berbetan “auzi honetan erantzukizun pribatuak eta publikoak daudela nabarmena da, txanpon beraren bi aldeak baitira”. Zentzu horretan ezer ez dela egin salatu eta “higiene demokratikoarengatik” pausoak ematea eskatzen dute.

“Eusko Jaurlaritza eratzeko negoziaketetan ari diren honetan, Iñaki Arriola jauna Jaurlaritza horren parte ez izatea eskatzen dugu. Argi dago Ingurumen sailak afera guzti honetan paper garrantzitsua jokatzeko zuela, eta ez zituen bere eginbeharrak modu egokian bete. Administrazioak erantzukizun zuzena du gertatu zen guztian”. Bestalde, udan kanpora doazenei dei egin nahi diete, plataformaren bandera eramanez eta argazkia egiteko, gero partekatzeko.

AUTUAN

EIBAR FACTORING, AURTEN DENDETAN

Egunotan bizi dugun egoera dela eta, udako beherapenen azokarik ez dute antolatu Eibar Merkataritza Gune Irekikoek. Hala ere, Toribio Etxebarrian posturik ez ipini arren, 26 dendek eskeintza bereziak egingo dituzte berdin-berdin, baina baikoitzak bere dendan. Gaur amaituko da eguaztenaz gozotik martxan egon den Factoring Indoor berezi hau eta parte hartzera animatu diren dendak hauek dira:

Askasibar, Beittu, Burbuja y Mas, Cedry, Corral, Doroti, Eskulan, Farmalur, Gratzina, Guby, Igmar, Oinberri, Izane, Kopiaña, Leder, Los Chicos, Mabe, Marais, Moapics, No Comment, Tribeka, Ttiki, Twins, Txukuna, Vieco eta Zentral Optika.



PENTSIODUNAK

Astelehenetako elkarretaratzeak eten egingo dituzte Eibarko pentsiodunek, udako oporrak direla eta. Hala ere irailen itzuli egingo direla aurreratu dute. Lehen mobilizazioa irailaren 7an, Arrate egunaren bezperan izango da.



BLANCA MENDIKUTE ARANZABAL

(2020-VII-13)

*Zu joan zara, baina zureganako gure maitasuna ez.
Ez ditugu inoiz ahaztuko izan dituzun ilusioa eta bizipoza.*

ETXEKOAK



Adeitasuna barraren atzean

EKHI BELAR

Caracasek 2 milioi biztanle ditu eta 3 milioi lagun bizi dira guztira barrutian. Azken hamarkadetan Venezuela etengabeko gatazka egoeran bizi izan den herrialdea bada ere, Robert Chamosok maitasunez gogoratzen du bere jaioterria. “Caracas asko gustatzen zait. Etxebizitza asko dago, zementua nonahi, baina edonon aurkitu ditzakezu toki berdeak, zuhaitzak, parkeak”, esan digu. Bera kanpoaldean bizi zen, “oso gustora”, eta nahiz eta delinkuentzia presente egon, inoiz ez zuen beldurrik izan. “Kalean libre sentitzen ginen. Gaztaro zoragarria izan nuen”, gogoratzen du. “Beti kalean, lagunekin... hango eta hemengobizimoduak antzekoak dira”.

Pilota Venezuelen

Robertek Caracaseko (eta Venezuelako) toki gehienak eza gutzen ditu. Lagunekin han eta hemen jolasten zuen, eta beisbola aitzakia ederra izan zen batetik bestera ibiltzeko. “Venezuelan beisbola da kirolik gustokoena, baina foballak garrantzia handia hartu du azken urteotan”. Euskal Herriaren zerikusia zuela jakin barik, Robertek esku-pilotan jokatzeko zuen gaztetan. “Gomazko pilota gogor batekin eskuz jolasten genuen, baina hemengo jokoarekin alderatuz, pilotarekin txapa azpian jo behar genuen”, dio pilotari venezuelarrak. “Hemen konturatu nintzen jatorri euskalduneko kirola zela”, dio.

Jatorri galiziarra

Roberten gurasoak Venezuelara erbesteratu ziren galiziarrek dira, Ourensekoak. Venezuelen asko dira jatorri euskalduna, kanariarra edo galiziarra dutenak, eta komunitateak sortzen dira. Hala ere, Robertek dio gurasoek, nahiz eta jakin, ez ziotela galegoz berba egiten: “Francoren sasoiari galiziarrez egitea debekatuta zegoenez, beldur hori zeukaten eta ez zuten galegoz egiten. Ezkutuan akaso”. Dena dela, Robertek izango zuen galegoa ikasteko aukera. Gurasoek eta



Robert Chamosok Txirula taberna zabaldu du berriki.

anai-arrebek Venezuela laga eta Galiziara joan ziren bizitzera, bera Venezuelen geratu zelarik, baina 1998an bizitza aldatuko zion deia jaso zuen: “Anaiak deitu zidan aita oso gaixorik zegoela esanez, eta Galiziara

joan nintzen bizitzera”. Han, behingoz, galegoa ikasi zuen.

Eibar, Caracas txikia

Emaztearekin eta seme-alabekin Galizian hainbat urte egin zituen Robertek, baina dibor-


tziatu ondoren emazte ohia eta haurrak Venezuelara itzuli ziren. “Sasoi gogorra izan zen”, gogoratzen du Robertek. Gainera, lan barik geratu zen eta, anaia Eibarren bizi zenez, hona etortzea erabaki zuen. “Eibarren anaia bisitatzen egonda negoen eta ondo egokitu nintzen hemengo bizimodura. Eibar Caracas txiki bat da”, bere ustez. Bizitzan zehar Robertek hainbat ikasketa egin ditu eta, goi-mailako formakuntza izan arren, edozein lan egiteko gai da behar izanez gero. Hainbat urtetan informatikaren munduan lan egin ondoren, Buenos Aires tabernan edalontziak jasotzen ibili zen eta gero zerbitzari lanetan Kalton tabernan. Orain Ipuruako Txirula taberna zabaldu du, aro berri bat hasiz. Pintxoak, errazioak eta giro atsegina aurkitu daiteke Argatxako jardinetako txoko honetan.

Alabak eta ilobak bisitatzen

Galiziar jatorria izan arren, bere izaera oso venezuelarra dela dio Robertek. “Baina hainbeste urte kanpoan egon ondoren, azentua galdu dut”, dio atsekabez. Hala ere, bere hizkeran Venezuelako zaporea antzematen da oraindik. 21 urte Venezuela zapaldu barik egon ondoren, iaz bere jaioterrira bueltatu ahal izan zen eta, hamar urte eta gero alabak berriz ikusteaz gain, ilobak ezagutzeko aukera izan zuen. “Demasa izan zen eurak aireportuan ikustea eta sei ilobek ‘abuelo’ esatea”, dio emozio handiz, “ezin dut berbeekin azaldu”. Gogorra da hainbeste maite duzun pertsonengandik urrun egotea, baina Robertek animoz egiten du aurrera. Semea, behintzat, Galizian bizi da eta gehiagotan ikusteko aukera du, eta ama anaiarekin bizi da Eibarren. “Orain alabak etortzea nahiko nuke, ea COVID-19ak uzten digun”, dio itxaropentsu. Bitartean, Jose Manzo Perroni musikari venezuelarrak sortutako ‘Moliendo café’ abestia entzuten da Txirulan.

“ Carpe diem ”

“Momentua goza ezazu”, esaldi hau bereziki garrantzitsua da Robert Chamosorentzat



COVID-19a Debarrenean. Uztailaren 10etik 22ra bitartean Debarreneko herrietan erregistratu diren positiboaren eboluzioa. ITURRIA: EUSKO JAURLARITZAKO OSASUN SAILA,

Uztailaren 10etik 22ra
pilatutako positiboak
herriz herri

Ermua	143
Eibar	112
Elgoibar	16
Deba	15
Soraluze	10
Mutriku	1
Mallabia	1
Mendaro	1
GUZTIRA	299

Koronabirusaren bigarren olatua ekarri digu udak

Uztailean piztu den COVID-19aren agerraldi berriari lotutako datuak ez dira lasai egoteko modukoak, are gutxiago gaitzaren fokuetakoa bat Eibar eta Ermua bitartean piztu denean: izan ere, azken egunetan (uztailaren 10etik) 143 positibo baieztatu dituzte Ermuan eta 112 Eibarren. Debarrenean, berriz, guztira 299 kasu berri baieztatu dituzte.

Eguaztenean 5.135 PCR proba egin ziren EAEn, eta, haietatik, 138 positiboak izan ziren. Horietako 22 Ermuan baieztatu zituzten, 14 Eibarren, bi Deban eta bat Soraluzen. Gauzak horrela, alarma guztiak piztu dira berriz ere.

Batera ailegatu ziztaizkigun aurreko astean maskararen erabilera derrigortzen duen neurria indarrean sartzea eta COVID-19aren positiboaren ugaritzea. Hilabete oso bat inorkutsatu barik eman eta gero, kolpe latza hartu genuen aurreko astean, Eibarren, Ermuan eta inguruko beste herrietan positiboak baieztatzen ari zirela jakin genuenean. Barixaku goizerako auto-ilara luzeak ikusten ziren Eibar Ospitalearen kanpoaldean eta atarian bertan prestatu zuten gunean PCR probak egiten hasi ziren, etenbarik. Irudia hurrengo egu-

notan errepikatu zen, gainera, Eibarren eta Ermuan kasu berriak baieztatzen joan ahala proba egitera joateko deia jaso zutelako askok. Eta beste askok, zain egon barik, positiboren batekin kontaktua izatearen susmoaren aurrean proba egitea eurek eskatu zuten. Konfirmatutako kasu gehienak gazteen artean agertzen zirela ikusita, osasun sailak dei egin zien uztailearen 8tik 12ra bitartean kurtsu amaiera dela eta Zarautzen antolatutako ospakizunetan parte hartu zuten gazteei etxeetatik ez irtetzeko, pertsona zaurgarriekiko harre-

manak eteteko eta nork bere osasun zentrorara deitzeko, PCR proba egiteko.

Horrekin batera, Eusko Jaurlaritzak neurriak zorrotz eta Eibarko ostalaritzan murrizketak jarri zituzten indarrean barixakuan bertan, pixka bat aurretik Ordizian egindakoari jarraituta: ostalaritza-establimenduen edukiera berriz ere %50era mugatu zuten, debekata dago barran kontsumitzea eta establimenduek, gehienez ere, 23:30ean itxi beharko dute. Txokoei eta elkarte gastronomikoei ere eragiten die gaur astebete ezarritako debekuak.

Aipatutako horiek ez dira izan koronabirusaren hedapena eteteko asmoz hartutako neurri bakarrak. Egoerak hobera egin arte, behintzat, Eibar, Elgoibar eta Mendaroko adinekoren eguneko zentroak ixtea erabaki du Foru Aldundiak, zaharren egoitzetan irteerak murriztu dituzte eta eguneko zentroak eta udalekuak ere itxi egin dira. Maite Peña Gizarte Politiketako foru diputatuaren berbetan, COVID-19ren Gipuzkoako azken orduetako egoeraren eta Eibarren erregistratutako kutsatzeen ondorioz, eta Osakidetzarekin eta zentroetako

arduradunekin harremanetan jarri ondoren, "prebentzioa indartzeko" hartu zuten erabakia aurreko asteburuan.

100 euroko isuna maskara erabili ezean

Bestalde, herritarrei maskara derrigorrez erabili behar dela gogorarazteko asmoz, Eibar-ko etxe guztietako atarietan Udalaren oharra ipini dute, bete-beharreko neurriekin, eta Udaltzainek horien berri ematen dihardute, megafonia bitartez. Arduraz jokatzeko eskaerarekin batera, arauak betetzeak berebiziko garrantzia duela gogora ekarri nahi du alkateak: "Erabili maskarilla, eta ondo jarri, ahoa eta sudurra estaliz. Gorde gutxieneko 1,5 metroko tartea eta garbitu eskuak sarri gel desinfektatzailearekin edo, hobe, urarekin eta xaboiarekin. Neurri horiek betetzeko orduan funtsezkoa da norberaren erantzukizuna, gure inguruan berriz

Hilabete osoa inor kutsatu barik eman eta gero, kolpe latza hartu genuen aurreko astean. 299 positibo baieztatu dira Debabarrenean azken egunetan, 112 Eibarren

ere azaltzen ari den birusaren hedapena geldiarazteko". Bestalde, maskarak nahitaez erabiltzeari buruz ezarritako araua betetzen ez dutenei 100 euroko isuna ezarriko zaie.

Gipuzkoako Farmazialarien Elkargoak, bestalde, maskara ondo erabiltzearen garrantzia azpimarratu nahi du, gaizki erabiliz gero onura baino kalte gehiago eragin ditzakeelako. Hori dela eta, herritarrei higienerari lotutako oinarriko gomendioak gogorarazi nahi dizkiete: "Maskara ipini baino lehen, eskuak ondo garbitu behar ditugu beti. Sudurra eta ahoa ondo estali behar dira eta, behin ipinita, ahalik eta gutxien mugitzen ahalegindu behar gara, ez da ikutu behar. Kentzerako orduan, berriz, gometatik heltzea da egokiena eta, edozein modutan ere, maskara bera ikutzea saihestu beharra dago. Berriz erabiltzeko gorde behar badugu, berriz, poltsa batean ondo gordetzea komeni da, zuzenean poltsikoetan sartzea eta horrelakoak ez dira portaera egokiak".

Maskara mota ezberdinak daude, baina Gipuzkoan gehien

erabiltzen dena maskara kirurgikoa da. Horren harira, argi laga nahi dute maskara horiek ez dutela daramana babesten: "Beste batzuk babesteko balio du, baina. Horregatik da hain garrantzitsua guztiok eramatea".

Erabilera bakarrek maskarak behin erabili eta bota egin behar direla azpimarratu dute: "Fabrikatzaile bakoitzak gomendatzen duen gehieneko denbora errespetatu beharra dago. Maskara motaren arabera, erabilera-denbora alda daiteke, baina honako hauek dira batazbestekoak, orohar: maskara higienikoek zein kirurgikoek 4 orduko iraupena daukate eta ondoren (edo maskara hezea badago) bota egin behar dira. Oihalezkoen kasuan ez da ezarri gehieneko denborarik, baina hezea edo zikina dagoenean aldatzea komeni da. Eta FFP2 eta KN95 modukoak 8 orduz erabil daitezke". ■

Osakidetzak ohartarazi duenez, arnas sintomak dituen pertsona (eztula, sukarra (+37°), ezarriko mina, arnasa hartzeko zailtasuna edo usaimena galtzea) bakartuta geratu beharko du, eta harremanetan jarri beharko du bere ohiko osasun-zentroarekin telefonoz. Osasun Aholkuaren 900 20 30 50 telefono-zenbakian koronabirusari buruzko informazioa eskainiko da.



Maskararen erabilera derrigorrezkoa

2020ko uztailaren 15eko Aginduan hartutako neurri guztiak bi osasun-irizpidetan oinarritzen dira:

- Pertsonen pilaketak ekiditea; izan ere, birusa transmititzeko foku garrantzitsua dira.
- Birusaren transmisioa ekiditea gizabanakoak elkarrengandik hurbil daudelako eta, horretarako, maskara erabiltzea derrigorra izatea, eta 1,5 metroko segurtasun-distantzia ezabatzen delako.



Baimendutako harategia
Euskal Okela
Carniceria autorizada

Espezialistak plater prestatu eta haragi bikainetan
ETXERA ERAMATEN DIZUGU

ABUZTUKO ORDUTEGIA
astelehenetik ostiralera: 09:00 - 14:00
larunbatean: 09:00 - 13:30



Bidebarrieta, 20 tel. 943 20 16 69

@Oberenaharategia



EIBARKO KLUB DEPORTIBOIA

“Deporra eta euskara bat etorri dira beti”

Zergatik animatu zarete Ari-gune izatera?

Deporrek beti bultzatu du euskararen erabilera, bai talde barruan bai kanpora begira. Gure ekintzak ez ditugu ulertzen euskararik gabe. Deporren, adibidez, euskarazko klaseak eman ziren 50. eta 60. hamarkadetan, Juan San Martin kultura batzordeko presidente zela.

Deporra eta euskara beti etorri dira bat. Arigune naturala gara.

Deporren barruan hainbat batzorde daude. Euskara da nagusi guztietan?

Deporrek azpi-ariguneak dituela esan daiteke. Batzorde guztiak erabat euskaldunak ez badira ere, oso euskaldunak dira eta euren jardunaren gehiengo

euskaraz egiten da. Horrela, batzordeetan sartzen den jendea euskaldundu egiten dela ikusi dugu. Noski, hizkuntzagatik ez dugu inor baztertzen.

Eta taberna?

Lehen taberna alokatu egiten genuen, baina orain guk dugu ardura eta tabernaria guk kontratatatu dugunez, euskalduna

izatea nahi genuen. Deporra beti egongo da irekita euskal giroan egon nahi duenarentzat eta taberna toki aproposa da horretarako.

Zerbait berezia prestatuko duzue Euskaraldiari begira?

Irailetik aurrera hasiko gara lanean, jendeari gauzak euskaraz egiten daitezkeela adierazteko.



ASKASIBAR kirol-denda

“Dendan euskararen erabilera lehenesten dugu”

Zergatik erabaki duzue Euskaraldian izena ematea?

Askasibarren beti egin dugu euskararen alde eta Euskaraldian entitate bezala parte hartzeko aukera iritsi zitzaigunean ez genuen birritan pentsatu. Dendan euskararen erabilera lehenesten dugu: telefona hartzeko, jendearekin hartu-eman izateko... Gero, ez badute ezer ulertzen, gaztelera jotzen dugu, baina bestela euskaraz. Beti hartzen dugu parte euskararen aldeko ekimenetan.

Beraz, Askasibar berez da Ari-gunea, ezta?

Bai, ez dugu ohiko jarduna aldatu behar Arigunea izatea

gatik, Arigunea garelako berez. Adibidez, Gaby hasi da gurekin lanean, dendan euskaraz ez dakien lehenengo, baina euskararen aldeko jarrera du eta poliki-poliki saiatzen da. Harrituta dago Askasibarrera datorren jende gehienak euskaraz egiten duelako.

Nola animatuko zenituzkete beste entitateak Euskaraldian parte hartzeko?

Oso ekimen polita da eta jendeak gustora hartzen ditu horrelako gauzak. Gure arteko harremanak sendotzeko eta gozatzeko balio dute. Euskararekin hurbiltasun handiago sentitzen dugu. Denok elkarrekin aurrera egitea polita da.



Gertukoak izateari eta entzuten jakiteari garrantzi handia ematen dio Xabier Zubizarreta San Andresko parrokoak. Bere funtzioa gertuago ikusten du euren hitza esan dezaketen kristau askeak egitetik eliza betzetetik baino. SILBIA

San Andres parrokia ere sasoi berrietara moldatze bidean

Xabier Zubizarreta bertako parrokoak bi hamarkadatik gora daramatza Eibarren eta, beti egin duen legez, ondo egokitu da joan den tokietako bizitzara. Gurean ere ez zaio askorik kostatu eta pozik bizi da eibartarrez inguratuta. Askok baloratzen du herrian dauden erlijioen arteko harremana, “bakoitza bere sinesmenarekin, baina hurkoarena errespetatuz”. Beste mota bateko jendearekin elkarbizitzen jakiteari garrantzi handia ematen dio. Eta gertukoia izan nahi du, “elizatik irten eta sufritzen eta gozatzeko duen jendearekin egoteko”.

San Andres parrokian aspalditik behar-beharrezkoak zizuten konponketa lanei heldu diete azken aldian, horrek egun batzuetan kanpaihotsik gabe laga bazituen ere inguruneak. Xabi Zubizarreta bertako parrokoak dorreko eskilarak konpondu dituztela diosku: “Goraino, kororaino eta gorago. Kororainoko tartean harriarekin egin dute lan, eta beste zatian egurra doa. Baziren 25 urte gutxienez eskilara horiek ez zeudela ondo eta bide horretan zerbait gertatzeko arriskua ere izan dugu”.

Lanak hasi eta ez denbora askora bertan behera laga behar izan zituzten, martxoaren 16an. Pandemiaren aurkako neurriek eragin zieten obra horiei ere eta “bi aste geldirik egon ondoren, aurrerako bideari normaltasunez ekin zioten. Azpeitiko Txikerra enpresak egin zituen arotz-lanak, egur-lana ere azpeitiarren esku jausi zen, aitalaba ibili ziren hor, harri-lana Bilboko etxe baten kontua

izan zen eta guzti hori Eibarko Bosark-ek gainbegiratu zuen”, dio Zubizarretak. Elektrizitatea ere guztiz berritu dute eta gaur egun pintatze eta txukuntze lanetan dabilta, “presa gutxiagorekin”.

Barruko lan horiek kanpotik ez ziren igarriko, ez balitz kanpaiak jotzearekin laga ziotelako. “Erlojua ondo zegoen, ez zuen ezer, baina kableekin-eta kalterik ez izateko, teknikariekin berba egin ondoren bi hilabeterako jai eman genion. Bestela, sistema alemaniarra erabiltzen du eta ondo dabil; zeezker aipatzekotan, Calbeton kalera ematen duen esferak bi minutuko desoreka duela”.

Kanpaiak goizeko 07:00etan hasten dira jotzen San Andresen eta gaueko 22:00ak arte ordu laurdenero entzuten dira, kale egin barik: “Orduetan bitan jotzen du, pare bat minuturen tartearrekin”. Jendeak gustora hartzen ditu “abisu” horiek, kexarik izan izan bazen ere: “Badira urteak orduan

23:00etan jotzen zuena kentzeko eskatu zigutela eta baita berehala kendu ere. Bestela, jendeak eskatu egiten du”, dio Xabierrek. Koronabirusarekin ere, izan ziren Pazko Egunean behintzat ipintzeko eskatu ziotenak.

Parrokia ez da atzo goizekoa eta oraindik hainbat konponketen beharra ere badu: “Badago bederatzi metroko biga bat, koruko partean, zabaltzen joan dena azken aldian. Premia handia du horri aurre egiteak eta hori izango da hurrengoa”. Eta, ondoren, organoari helduko diote: “Elizbarrutian sartuta dugu eskaera, Diputazioari baimena eskatzeko. Hemengo organoak mendeurrena beteko du 2022an eta ordurako konpontzea gustatuko litzaiguke. Eibarren batzorde organista aberatsa dugu”.

Azken obretan jardun dutenek aurkikuntza baten berri eman zioten Xabierri, “baina hemen ez da urrerik, eh! Harri artean ezkutatuta, botila batzuen artean, 1936ko egunkaria aurkitu zuten, bertan Agirre lehendakaria Gernikan zin egiten jasotzen duen irudiarekin”. Ez da arraroa, jakinda gerra denboran dorrea toki estrategikoa izan zela abisuak-eta emateko.

Baina hortik aparte, eta askok diotenaren kontra, “elizaren azpian ez dago ezer berezirik, guk dakigunik behintzat. Atzeko partean ere, Eibarko Bizikletaren Plazari ematen dion tartean, kalafakzioa besterik ez dago”.

Arrate eta Aginaga ere bere esku San Andres parrokoiko ardura Arrate eta Aginagako elizere-narekin partekatzen ditu Zubizarretak. “Arraten monjak daude eliz-barrutiko kapelautza eramaten eta Alejandro Cid txiletarra galdu dugu. Hiru urterako etorri bazen ere, hango gotzain berriak eskatuta Txilera itzuli behar izan da berriro; oso pozik zegoen hemen eta euskerarekin asko aurreratu zuen”. Xabik dioskunez, beltz bat da etortzekoa, “Ruandatik,



Elizako dorreraino doazen eskaileretan egindako azken konponketak erakusten dizkigu San Andreseko parrokoak.

edo Zairetik”. Aginagan hilean behin izaten da meza ematen, “lehenengo domekan, 10:30era aurreratutako ospakizunean. Eurekin egotea ere gustatzen zait eta horrela badut tartea 12:00etan hemen parrokoiko beste elizkizuna zain dudalako”. Parrokian meza ematen du arratsaldero, 19:00etan, eta domeka eguerdian aipatutakoa du, 12:00etan. Hiletak asteko egun guztietan egiten dira, domeka kenduta.

Funtzio horietatik kanpo, zaharren egoitzetan ere, hantzen da Xabier. Lagatzen diotenean behintzat: “Pandemiaren arazo honekin, eurek hots egin arte hemen nago, zain”.

“Azken obretan ere ez da urrerik aurkitu hemen; ez dagoelaren seinale, akaso”

Ego-Gainen zapatuetan ematen du meza, 10:30ean, eta San Andres egoitzan domeketan, 11:00etan: “Azken horrek, gainera, auzo-meza itxura hartu du, Legarreko jendearekin, koro eta guzti”.

Normaltasunerako bidean

Martxotik hona, azken hilabeteotan bertan behera geratutako hainbat ospakizun berreskuratzen hasiak dira parrokan, “poliki-poliki bada ere”. Jendeak errespetuz jokatzeko duela dio parrokoak “eta portaera bikaina erakutsi dute. Denetarik dago: badago urteurrenean ospatzea pentsatzen dutenak, bakoitzak ikusi behar du. Eli-

“Maiatzeko jaunartzeak irailean berreskuratuko ditugu”

za handia da gurea eta auke- ra ematen du neurri guztiekin egiteko; gainera, 40 silla jarri ditugu, ondo antolatuta guztia”. Hiru lagun hileta ere egin izan dute aldi berean maiatzaren 11n eliza berriro zabaltu zutenetik.

Lehen jaunartzeen ospakizunak irailean egingo dituzte: “Gurean maiatzaren 9 eta 10eko astebururako genuen data jarrita. Orain, herriko beste parrokia guztiekin adostuta, programa zabala eskaini dugu, guztiak ere irailean egitekoak: gurean 18-19an izango da, Karmelitetan 26an, San Pion 12an... Data horietan ezin duenak beste parrokia baten egin dezake, ez dago arazorik”. Bataioen kasuan, orain aparte egiten dute, “ez meza barruan”. Etzi, hilaren 26an, dute hitzordua; eta hurrengoa irailaren azken domekan izango da. Hor ere eskaintza zabala dago.

Izadia zaindu beharra

Pandemiarekin bizi dugun egoerak zein ondorio ekar ditzakeen galdetuta, honakoa diosku Xabierrek: “Bitxoa etorri zaigu eta denok gaude kezkatuta. Edozer gertatuta ere, gora laster egingo dugulakoan nago. Baina, hori bai, izadia zaindu behar dugu. Mozorrotuta zegoena sumendiaren erupzioa balitz etorri zaigu gainera eta kalteak izan ditugu, jakina. Batez ere adinekoengan, esaterako, sufrimendua ekarri du eta kolpe handia izan da. Gazteentzat ere, pentsarazteko tartea eskaini du, aukera moduan hartu beharrekoa. Eta umetxoak ere izan dute eurenna: bi hilabete etxean sartuta, gurasoekin”.

Parrokiko gauzetaz bere ardura ondo banatuta du Zubizarretak: “Aldamenean ditut Maite Erostarbe, Carmen Muruamendiaraz... ezerk ez die ihes egiten horiei. Antonio Beitia ezin dugu ahaztu: artxiboa eta diru-kontuak berak eramane ditu azken hamarkadotan, bestela niregatik... Eta hor daude katekesi-taldeak, emakumez osatuta ia beti”. ■

“Eibar aberatsa da harreman mailan”

Xabier Zubizarretak 23 urte daramatza Eibarren. 1997an etorri zen gurera eta, San Pion zortzi urte egin eta gero, San Andreseko parrokoa dugu. Aurretik Bergaran eman zituen 14 urte, Antzuolan euretako bat. Aurrez beste bederatziz egin zituen Zestoan. Eta hori baino lehenago hasierako hirurak Zumarragan. Hori bai, egon den herri bakoitzean, “heldu eta berehala, padroian eman dut izena”. Gurean ere berdin: “Lo egitera beti Eibarrrera; ez naiz kanpoko txoria”.

Santa Kurutz du gogoko, “bertako ermita eta harriarekin, izadiaren aldetik guztiz betetzen nau, Udalaiz eta Anbotoren begiradapean”, eta harekin batera, Arrateko gurutzeak eta Ixuako miradoreak osatzen dute bere Hirutasun Santua: “Ixuara lehen martitzenero joaten nintzen”.

Egon den toki guztietatik atera du bera aberastu duen zeozer. Horregatik, “eskerrak besterik ezin ditut eman. Jendeak emandakoarekin bizi gara eta, eskatu dugun bakoitzean, jendeak bikain



Xabier Zubizarreta parrokiaren egindako azken obretako lanetan aurkitutako 1936ko gerra sasoiko egunkariarekin.

erantzun digu. Krabelinen egin beharreko obrak parrokiak ordaindu zituen; hor dago Caritasendako, misioetarako... jasotzen duguna”.

Parrokiak dituen lokalen erabilerarekin ere pozik dago Xabier: “Txirio-kaleko pisua egoera onean dago eta EL-

goibartik etorritako familiari, hiru seme-alabekin, laguntza ederra eskaini dio. Eliz-taldeetatik aparte, Alkoholaren eta Jokoaren gaixotasunei aurre egiten dieten elkarteek ere hemen egiten dituzte bilerak”. Harro sentitzen da klaustroa erabiltzeko deitzen dioten

bakoitzean, “ahal denean laguntzea pozgarria delako”. Elizako koroa eta organistak ere ez dira falta, “izan Jon Zarrabe, Juan Luis Agirre edo Belen Sagarzazu”.

Eibarrek aspalditik izan duen entiero zibilen ohiturak atentzioa eman dio beti: “Mundu hori errespetu handikoa izan da beti. Herri batek heriotzaren ospakizuna iritzi desberdinarekin egituratzeko gai izatea garrantzitsua da. Horrek erakusten du hemen beste klima bat arnastu dela, espiritu horri eutsi behar zaio”. Horregatik baloratzen du beste erlijio batzuk ere gurean duten indarra eta horrek erakusten duen pluralismoa: “Hemen marokoarren taldea handia da, badira Senegaletik etorritako musulmanak, beste ikuspegi bat eskaintzen duten protestanteen taldeak, Jehova lekukoak, ebangelistak...”.

Bere ibilbidea hemen amaitzea espero du Xabierrek. Beti ere, “kargua eta ardurak uzten jakinda, eta zerbitzen jarraitu arren”. Oporrak ere izaten ditu: “Urriari beti, 15 egunekoak”.



IRAZABAL
clínica dental

Abuztuaren ere ZABALIK

Hilaren 10etik 14ra:
08:00 - 15:30

Hilaren 17tik 21era:
13:00 - 20:30

Hilaren 24tik 28ra:
08:00-15:30

Julian Etxeberria, 12 - 1 esk. - 20600 EIBAR
Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com



Iraia Muñoa

Iraia Muñoa

Koronabirusa dela eta ez dela

COVID-19-aren txertoa lortzeko "lehiaketa" mundial batean buru belarri murgilduta gaudela, astelehenean jakin genuen Oxford-eko Unibertsitateak aurrerapen handiak egin dituela. Txerto eraginkorrenaren bilaketa prozesuan bitxia da ikustea nola ikerketa talde gehienak birusa aztertzeraz egokitu diren, jorrazten duen gai zientifikoa edozein dela ere. Izan ere, informazio orok lagundu dezake txertoa sortzeko bide luzean: birusaren egitura, bere bide molekularrak, datu epidemiologikoak, biztanle taldeetan sortutako sintomak eta albo kalteak...

Ondorioz, zenbait datu xebreren berri izaten dugu astero. Adibidez, EEBB-etako zenbait ikerketa talde eta Madrilgo hainbat ospitaleen arteko elkarlanak azaldu berri du COVID-19-a eta burusoiltasunaren artean erlazio estua egon daitekeela. Ikerlan honetan, birusak kutsatutako paziente talde txikiak aztertu zituzten eta larri ospitalizatutako ehuneko handi bat gizonezkoak eta burusoilak zirela ondorioztatu zuten. Dirudienez, gizonezkoetan ugaria den eta besteak beste ilearen erortzea

"Ikerketa talde batek azaldu berri du COVID-19-a eta burusoiltasunaren artean erlazio estua egon daitekeela"

eragiten duen hormona taldeak (hormona androgenoak), koronabirusa biriketako zeluletara sartzea erraztu dezake. Horrela, arrisku handiagoa egongo litzateke hori hedatu eta pneumonia bezalako konplikazioak sortzeko.

Argi dago emaitza hauek orokortu aurretik paziente talde handiagoetan aztertu behar dituztela. Guzti honekin, burusoilen artean alarma sortu baino, informazio baliagarria lortu da birusaren prebentzioa lantzeko eta sintoma larrien tratamenduan aurrerapenak egiten jarraitzeko, kasu honetan burusoiltasunaren aurkako farmakoen osagaietatik abiatuta.

Bitartean eta txertoa iritsi arte, badakizue, transmisio komunitarioa galarazteko maskara erabili! Albistean gehiago sakondu nahi duenak, "Journal of American Academy of Dermatology" aldizkari zientifikoa eskuragarri du artikulua (DOI: 10.1016/j.jaad.2020.05.079).



Pedro Alberdi

Pedro Alberdi

Uda on

Zaldibarko zabortegearen luizitik bost hilabete eta erdi bete diren honetan, ez dago berririk bertan desagertutako Alberto Sololuze eta Joaquin Beltran beharginei buruz, eta itxaronaldi makur honetan, gero eta gehiago gara hondamendiaren kudeaketan kontraesanak ez ezik irregulartasun nabarmenak daudela aldarrikatzen dugun herritarrok.

Bien bitartean, berriz, hauteskundeak izan dira Euskal Autonomia Erkidegoan. Gauzak ez omen dira asko aldatuko, baina aipatzekoa da agintaritzako bi alderdiek, arinki bada ere, botoak galdu dituztela zabortegearen muga-herrietan, hau da, Eibar, Elgeta, Zaldibar eta Ermuan. Datu esanguratsua, inondik ere.

Bestalde, hondamendiaren kudeaketak ez digu lasaitasun handirik eskaintzen, eta ez bakarrik Alberto eta Joaquinen gorpuek oraindik zaborpean segitzen dutelako. Hauteskunde aurreagoxe horretan, adibidez, honako albiste kezagarriarekin esnatu ginen: "Verter Recycling enpresak zabortegea handitzeko baimena eskatu dio Eusko Jaurlaritzako Ingurugiro Sailari eta honek onartu egin du haren eskabidea." Baina nola? Hondamendia eragin zuten berek auzia zuzendu? Nork sinets lezake halakorik? Sándor Márai idazle hungariarren hitzak datozkigu gogorra, estalinismoaren aparatuko burokraten gainean eskribitutakoak: "Piromanoa ezin da suhiltzaile bihurtu, lapurra polizia edota hiltzailea zirujau bihurtu ezin den bezalaxe".

Dena den, arazoak arazo eta aldarrikapenak aldarrikapen, bizitzak aurrera jarraitzen du. Leku pribilegiatuan bizi gara, hala klima eta tenperaturaz, nola mendi eta itsasoko paisaiatz. Askok, gainera, oporrak dituzte. Uda on, irakurle.

"Piromanoa ezin da suhiltzaile bihurtu, lapurra polizia edota hiltzailea zirujau bihurtu ezin den bezalaxe"



<<< ...eta kitto! Euskara Elkarte >>>

#Eibarrenbadakagu kalitatea eta erantzukizuna eskaintzen diguten denda eta tabernak

Dakizuenek Euskeraz Primeran! ekimenaren helburua zerbitzuen sektorean euskararen erabilera bultzatzea da eta, era berean, gure herriko denda eta tabernariak babesten saiatzen da ...eta kitto! Euskara Elkarte, bertakoa aldarrikatuz.

COVID-19ak sortutako osasun-larrialdia ezarri eta berehala sortu genuen #Eibarrenbadakagu, #nikEibarrengastaukot kanpaina, herriko denda eta tabernetan bizitzeko behar dugun ia guztia izanik, online plataforma handietan edo denda kate handietan kontsumitu beharrean, ekonomia zirkularran oinarrituta eta, ahal den neurrian, eibartarron dirua, Eibarren gera dadin.

Euskeraz
primeran!

Ekainean, pixkanaka, normaltasunaren antzeko zerbitzu berreskuratzen hasi ginen, baina azken egunotako berragertzeek establezimendu asko jarri dituzte dianaren erdigunean, eta osasun-larrialdia suspertu izanaren errudun moduan seinatu.

Guztionez ardura

Gure herriko dendari eta tabernariak izugarritzeko ahalegina egiten dihardute hasieratik, osasun-neurri guztiak betetzen eta euren establezimenduan gaudenean lasai eta eroso egon gaitezten saiakera egiten, beti ere kalitatezko produktuak eta zerbitzua eskainiz. Baina bezerook ere badugu zer egina, geuk ere arauak errespetatzen baditugu eta bereziki buloak za-

baltzen ez baditugu, errazagoa izango da denon arteko elkarbizitza eta konfiantza lortzea.

Denda eta taberna bakoitzaren atzean pertsonak daude, gu bezalako herritarrak, langileak eta familiak. Bezeroak aintzat hartzea ere garrantzitsua da eta denon hizkuntza-eskubideak bermatzea. Jakinda, gaur egun dakigun moduan, euskarari lotutako balioak (kalitatea, erantzukizuna, jasangarritasuna, modernotasuna...) salmentetarako balio ezinhobeak direla, dei egiten diegu beste behin ere dendari eta tabernariei euren sare sozialetan argitaratzen dituzten mezuetan, jendaurrean jartzen dituzten oharretan... euskara ere erabiltzeko. Eta, ahal den neurrian, bezeroak euskaraz artatzeko,

noski! Zentzu horretan, ...eta kitto! Euskara Elkarteak Euskeraz Primeran! ekimenaren barruan eskaintzen dituen doako zerbitzuak gogorarazi nahi dizkie: itzulpenak, zuzenketak, hizkuntza-aholkularitza etabar eta kitto!ren web-orrian kartel edo ohar eredu batzuk ere eskuragarri daude, norbere premietara egokitutakoak.

Sare sozialetan ere euskaraz

Sare sozialen kasuan beste horrenbeste, edozein mezu kaleratzeko orduan euskaldun bezeroak aintzat hartu eta euskaraz ere argitaratzera animatu nahi ditu ...eta kitto!-k dendari eta tabernariak, eta edozein eratako laguntza behar izanez gero elkarte@etakitto.eus helbidera idatzi dezakete.

Jai egunetan mendira eta dantzara

Urkira, Eztiagara, Arratera, Elgetara, Kalamura... Mendira asko joaten zen igandeetan. Ogia banatu ondoren, etxera joan, lanak egin eta 3ak aldera Kalamua mendira joaten ziren. Gero, arratsalde-gau partean dantzara joaten ziren plaza-
ra; eguen eta domeketan.



Ramon Gortazarren monumentuaren inaugurazioa Kalamuan, 1920an. GUREGIPUZKOA.NET



Faustina Lopez Larrea
(1908 – 2008)

Elgetakalean jaio zen 1908. urtean. Aita nafarra zen, baina euskaraz ikasi zuen. Ama "Ermuarretakua", Elgetakalean bertan zegoen okindegiko alaba. Eibarko kale zaharrak eta Elgetarako bidea ondo gogoratzen ditu Faustinak, eta batez ere Urki ingurua nolakoa zen gerra aurrean, horixe baitzen beren jolaslekua.

Faustina Lopez grabatutako pasarteetako baten transkripzioa

“[Ta kalia... mendira-ta joaten ziñazien?] Bai! Onbre! [Nora joaten ziñazien?] Urki geuria, Estixara be bai, Elgetara be bai, Arratera be bai... Kalamura be bai e? Lehelengo ogixa partidu, domekan e?, ogixa partidu ta ordu batak arte ogi partitzen, ta gehitxuago be bai igual. Etxera juan, aintxitxiketan, han be zeeze egongo zan eitteko, hartu merienda ta hiruretan Kalamuara. Gero bajau, ta kalera; ta gabian musikara. Egunetan be musikara. “Jueves”, eguenak eta barixakuak... o... domekak! [Hori udan izaten zan?] Bai, udan. “Primero de mayuan” domeketan, ta San Juanetan eguenian be bai”.



Eibartarrak Debako hondartzan, 1925. urte inguruko argazkian. EGOIBARRA

Hondartzara oinez

Udan Ondarroara joateko ohitura zuten. Oinez joaten ziren Ondarroara eta handik Debara. Udako egun baten txalupa bat hondoratu eta eibartar asko itota hil zirela oititzen du.



Victor Lecumberri Arana
(1913 – 2005)

1913an jaio zen Barakaldo kalean. Ama, Bernardina Arana eta aita Rufino Lekunberri. Errepublikak heldu zenean hasi zen politikaz arduratzen. Lehenengo errepublikarra zen, “azañista”. Berehala konturatu zen bera ezkertia goa zela eta komunista egin zen. 1934an soldadutza egitera joan zen. 1936ko altxamendua izan zenean, bera soldadutzatik itzuli berri zegoen eta konpainia bat gertatzeko agindu zioten. Gerra hasi eta Tolosa-Irun-Donostia inguruan egon ziren pare bat astean. Han egin zuten teniente. Frenetea Deba Arrora mugitu zenean, Eibarrera etorri eta orduan antolatu zen Amuategi Batailoia. Victor Santanderren hartu zuten preso, baina ihes egin eta Legioan sartu zen, frentera heldu eta alde egiteko asmoarekin

Victor Lecumberriri grabatutako pasarteetako baten transkripzioa

“Gero, udan, Debara juaten giñen, Ondarroara edo... menditik juaten giñazen, ba hortik, arro batetikan, Ondarroara bajatu [Eta zertara juaten ziñazien? Plaiara edo ez?] Bai, gero Ondarroan baiñua hartu ta tirriki-tarraka gero Debara oiñez [Dana oiñez...] Horixe pasauko zan, agostua izango zan, udia behintzat... Bagatoz Ondarroatik Debaruntz ta enterau giñazen zera, ene, itto zan ba traiñeria. Orduan juaten ziran Debatik Lekeittixora edo traiñeriakin, ta barria pasatzerakuan Deban, olatua o zeozer ta itto egin zan barkua, bete-bete jentiakin eh! Ta hil ziran, itto ziran zazpi edo zortzi, eibartarrak ixa danak [Ah, bai?] Don Ziriako, medikua... [Ziriako Agirre?] Ziriako Agirre, bai, Ziriako Agirre (...) [Orduan, tragedixa haundixa izango zan, horrenbeste hildako eta...] Bai, nik orduan eukiko neban 18 urte bat edo...”

A HOTAN

Hamaika plan etxetik oso gertu


Etxetik gertu hamaika txango eta jarduera egiteko, hamaika paisaia aurkitzeko, hamaika leku ezagutzeko daudelako. Azken hilabeteetan gure bizimodua eta ohiturak hankaz gora jarri ditu COVID-19ak, eta litekeena da, hurrengo egun eta asteetan, udako oporraldian, jende askok etxean bertan edo etxetik gertu geratzeko hautua egitea. Animatu gaituzen! Urrutira joan barik, Gipuzkoan bertan, gauza asko egin ditzakegu. Aprobetxatu ditzagun hurrengo asteak aldamenen ditugun leku berriak deskubritzeko, jarduera berriak egiteko, gure gastronomiarekin inoiz baino gehiago gozatzeko... Esperientzia berriak segurtasun osoarekin bizitzeko.

Urola Kosta: itsas-lurra izeneko turismo kanpaina aurkeztu zuten aurreko astean Zumaia, Getaria, Zarautz, Orio eta Aiako udal ordezkariak, Urola Kostako Udal Elkartearekin batera.

Udal elkarte osatzen duten bost herrietako turismo eskaintza bateratuta bisitariei aurkeztea eta, bestetik, turismo arloko enpresen lana bistaratzea eta bultzatzea dira kanpainaren helburu nagusiak. Gainera, eskualdeak eskaintzen duen "turismo jasangarria" Gipuzkoatik eta Euskal Herritik kanpora zabaltzea nahi dute, eta baliabideak jarri dituzte Katalunia-ko, Frantzia hegoaldeko eta Espainian Errioxa, Kantabria eta Madrilgo herritarrengana iristeko.

Kanpaina zabaltzeko sare sozialetan jarri dute indarra, eta hiru bideo ere egin dituzte. Euskarri fisikoa ere badu kanpainak, flyerrak sartuko dituztelako Gipuzkoa Passport ekimeneko pasaportee-tan. Azkenik, **www.turismoa.urolakosta.eus** webgunea ere martxan jarri du Urola Kostako Udal Elkarteak.

Lourdes Salsamendi UKUEko presidentea enpresak bultzatzea izan zuen hizpide: "Udal elkarte osatzen dugun herriok gauza asko ditugu komunean, eta kanpaina honekin turismo arloko enpresak ikustarazi nahi ditugu. Hori ezinbestekoa dela uste dugu COVID-19 birusak eragindako



Turismo masiboa saihestu eta turismo jasangarria proposatzen dute Gipuzkoako elkarte eta erakundeek


krisiari aurre egiteko. Kanpainaren helburua turismo sektoreari bultzada ematea da, eta azpimarratu nahi nuke, segurtasun neurriak errespetatzen baditugu, bizitza normala egin dezakegula eta hori lagungarria izango dela sektore osoarentzat".

Aldundiaren Gipuzkoa Passport ekimena ere goraipatu zuen, eta azaldu zuen udal elkartearen kanpaina guztiz bat datorrela aldundiaren ideiarekin: "Pasaportean aukera batzuk ageri dira baina, udal elkartearen webgunean sartuz gero, aukera gehiago daude". Turismo masiboa saihestu behar dela argitu zuen, eta udal elkartearen proposatzen ari dena turismo jasangarria dela azpimarratu zuen: "Badago gure esperientziak bertan kontsumitzea eta bertan bizitzea".

Gipuzkoa Passport

"Gipuzkoa Passport" izenburupean, udako turismo kanpaina jarri du martxan Gipuzkoako Foru Aldundiak. Lurrealdeko barne turismoa bultzatzeko helburuz ekin diote kanpainari, hau da, COVID-19ak eragindako krisiaren aurrean turismo jarduera dinamizatzeko xedez. Webgunea ere kaleratu dute, **www.gipuzkoaturismoa.eus**, eta han askotariko zerbitzuak nahiz informazioa eskura daiteke.

Gipuzkoako herri bakoitzak puntu bat jarri du doako pasaportea eskuratzeko. Eibar-ko kasuan, Armagintzaren Museoan jaso ahal izango da (Portaleko 5. solairuan). Pasaportean Gipuzkoako turismo eta aisialdi eskaintza jaso dute. Hain zuzen ere, guztira, 50 planeko zerrenda osatu dute; eskualde bakoitzeko bost plan bildu dituzte. Urola Kostaren kasuan, besteak beste, Loiola barnean hartzen duen Ignaziotar Lurrealdeko ibilbidea, Zumaia-ko flyscheko ibilbidea nahiz Getaria eta Zarautz arteko paseoa. Bestalde, Urola Kostako museoak, hondartzen gaineko informazioa, ostalari-tza zerbitzuena eta abar eskura



daiteke Gipuzkoa Turismoren webgunean.

Gipuzkoa Passport kanpaina urriaren amaierara arte egongo da martxan eta, aldundiak azaldu duenez, zozketak egin eta sariak banatuko dituzte. Gainera, pasaportearen osatzen duten lagunek aitortza jasoko dute sare sozialen eta martxan jarri duten webgunearen bidez.

Planak egiteko eta esperientziak bizitzeko aukera ematen die Gipuzkoak herritarrei

Gipuzkoa Passport Eibarko Armagintzaren Museoan jaso daiteke (Portalean)

Debabarrenean bertan

"Hamaika arrazoi ditugu Debabarrena hobeto ezagutzeko", www.debabarrenaturismo.eus atarian azaltzen digutenez: Euskal Kostaldeko Geoparkea (www.geoparkea.eus), gure hondartzak, gastronomia, natura, ondare industrial eta historikoak, kirolak, negozio turismoa...

Dolmenen ibilbidea Karakate-Irukurtzeta mendilerroan zehar egiten da, Soraluze, Elgoibar eta Bergarako udalerriak lotzen dituen Elosua-Plazentziako Estazio Megalitikoak zeharkatuz. 9 km-ko ibilbidean 7 monumentu megalitiko bisitatzeko dira. Guztira 4 orduko mendi-ibilaldia da.

Gure eskualdeak eskaintzen dituen aukeren artean, Eibarren bertan, Armagintzaren museoaren zabalik egongo da. Ordutegia www.armia-eibar.eus atarian kontsultatu daiteke.

Uda desberdina izango dela jakinda, gozatu dezagun aldemenean ditugun altxorrek.

Planak egiteko eta esperientziak bizitzeko aukera ematen die Gipuzkoak herritarrei, Imanol Lasa Sustapen Ekonomikoko, Turismoko eta Landa Inguruneko diputatuak azaldu duenez. "Benetako altxorrik ditugu etxetik gertu, eta une ezin hobea da horiek guztiak ezagutzeko". Haren arabera, "erantzun kolektiboa" eskatzen duen une kritikoan merkataritza, ostalaritza edo lehen sektorea suspertzeko apustua "sendoa" da, "betiere kalitatezko turismo eredu iraunkor eta orekatu baten aldeko apustuari eutsiz".



MUGIKA HARATEGIA

Urkizu, 18

943120194

*Abuztuan ere
goizez zabalik
08:30-13:30*

<<< **CARLOS GONZALEZ** • Bidaia-agentziako langilea >>>

“Ez dago oso urrun joan beharrik kapritxo baterako”

Abuztua opor hilabetea izan ohi da askorentzat, baina aurten ere, baina oraingoan ezberdina izango da denontzat ziurrenik. Carlos Gonzalezek 'B the travel brand' bidai-agentzian egiten du lan eta, esan digunez, jendeak ez du bidaia luzerik egingo. Zalantza eta ziurgabetasun sasoi honetan, hurbileko helmuga turistikoak ditu nahiago jendeak.

EKHI BELAR

Zer moduz doa udako kanpaina?

Aurten kanpainarik ere ez da egon. Udan hainbat eskaintza egiten ditugu normalean, baina ez oso esanguratsuak. Aurten, ordea, demaseko eskaintzak egin ditugu. Adibidez, iaz Kanariar Uharteetara joateko hegaldiek 400 euro inguru balio zuten uda sasoiaren eta aurten, hegaldiaz gain hotela eta mantenu erdia hartuz gero, paketeak 500 euro inguru balio du. Karibera joateko eskaintzak bertan behera geratu dira, jendeak ez duelako atzerrira bidaiatu nahi.

Zeintzuk izango dira aurtengo helmuga turistiko garrantzitsuenak?

Jendea iberiar penintsulan geratuko da batez ere. Espainiako hainbat tokitara joateko hautua egin dute, konfiantza kontuagatik (segurtasun-neurriak, distantziak...). Egia esan, nahiz eta egoera oso berezia den eta uda arraroa izango den, Andaluziako eta Mediterraneoeko hondartzetan ez daude urteroko jende pilaketak eta sasoi honetan oso gustora egon daiteke. Hori esan digute han egon direnek. Eta Kanariar Uharteak ere oso aukera ona dira, oso eskaintza onak daudelako. Ahal duenak aukera aprobetxatu beharko luke! Gainera, erreserba gehienak kostu gabe baliogabetu daitzke bidaiatu baino 15 egun lehenago abisatuz gero.



Jendeak azken momentura arte itzarongo du udako oporrrak planifikatzeko?

Ez dut uste. Beldur kontua dela pentsatzen dut. Jende gehiena lagun edo inguruko baten batek han edo hemen daukan etxera joaten da, hoteletara ez joatearren. Hotelekin alderatuz, etxeak eta apartamentuak beteta daude. Etxean bakarrik zaudenez, lasaia egoetako aukera dago.

Beraz, atzerrira bidaiatzea baztertu egin du jendeak?

Bai, guztiz. Jendeak ez digu proposatu ere egiten atzerrira bidaiatzeko aukera. Badago aukera, Europa erdialdean zirkuitua egiteko aukera eskaintzen dugu adibidez, baina inork ez du egingo. Laponia, Islandia eta hainbat tokitara joateko eskaintza asko iritsi zaizkigu, baina jendea ez da animatzen. Migratzaileek bakarrik galdetzen digute atzerrira joateko aukeren inguruan. Azken batean, euren jaioterrira joan nahi dute, baina hegaldi asko bertan behera geratu dira eta daudenak oso garestiak dira. Gainera, herrialde bakoitzean egoera ezberdina bizi da eta herrialde batzuek mugak itxi ditzakete egun batetik bestera.

Eskaintza bereziak egiten dituzuen moduan, bidai-aseguru bereziak ere eskaintzen dituzue?

Orain COVID-19aren inguruko gaiak bere gain hartzen dituzten aseguruak daude. Gaixotzen bazara, aseguruan sartzen dira horren inguruko kontuak; baina bidaiatzeko



“Jendeak ez digu proposatu ere egiten atzerrira bidaiatzeko aukera”

erreserba badaukazu eta Eibar itxita dagoelako ezin baduzu bidaiatu, adibidez, hor konpon, aseguruak ez du bere gain hartzen.

Eta bidaiatzen baduzu eta han zerbait gertatuz gero, zer gertatuko litzateke?

“Turismoaren sektoreak demaseko kolpea hartu du COVID-19arekin”

Aseguru berriek bere gain hartzen dituzte horrelako egoerak, baina aberriratzea, laguntza medikoa eta horrelakoak lehengo aseguruetan ere sartzen ziren.

Adibidez, Kanariar Uharteetara joaten bazara eta uharteak

konfinatzea erabakitzen badute, etxera itzuli zaitezke?

Pandemia hasi zenean antzeko egoerak gertatu zitzaizkigun. Bezero batzuk Kanariar Uharteetan zeuden eta itxialdia ezarri zuten. Pentsa, martxoaren 13an joan ziren eta 16an itxialdia ezarri zuten. Hotela itxi egin behar zutela esan zieten eta etxera itzultzeko aukeren bila hasi ginen. Handik bi egunera Loicura joateko hegaldia lortu nien, baina bertan behera geratu zen eta hurrengo egunetan berdin. Horrelako egoeretan gure betebeharra da alternatibak bilatzea.

COVID-19ak hankaz gora jarri du zuen lana. Nola eragin dio zuen negozioari?

2020. urtea oso ona izango zela uste nuen, bidaiara asko salduta genituelako (jendeak urrian hartzen ditu Aste Santuko bidaiak, adibidez), baina martxotik aurrerako bidaiak guztiak bertan behera laga behar izan ditugu eta saldutako guztia itzuli behar izan dugu. Demaseko zuloa izan da guretzat eta, gainera, lan gehiago egin behar izan dugu. Turismoaren sektoreak demaseko kolpea hartu du.

Dena dela, jendeak bidaiatzeko gogoarekin jarraitzen du?

Bai. Aurten ezin izango dira bidaiak luzeak egin eta bidai ahoriek egiteko dirua zuen jendeak berdin gastatu nahi izango du. Adibidez, iberiar penintsulatik irten barik bidaiak eksklusiboak egiteko eskaintzak irten dira orain. Ez dago oso urrun joan beharrik kapritxo baterako.

>>> Negu luzearen ondoren konfinamenduan beste hiru hilabete pasatu eta gero, gure herriko motorzaleak Cartagenako zirkuituan hasi zuen SEK Open EasyRace txapelketa ohikoa duen podiumera igota. Oraingoan hirugarren postuarekin konformatu behar izan zuen; hala ere, entrenamenduetarako izan dituen arazoak kontuan hartuta, berarentzat “garaipena” izan zela dio Monterok. Horregatik, Aitor Montero Team taldeari eskertuta dago amañatarra, “sari hori lortzeko motorra sting onarekin ipintzeko egin duen lan guztiarengatik”. Beroak asko markatu zuen jokatutako proba: “40 gradu giroan eta 56 asfalto gainean. Tenpe-

Aitor Montero pilotoak podiumean hasi du denboraldi berria



ratura horrekin neumatikoek ez diote ondo heltzen asfaltoari eta egin beharreko ahalegina biderkatu egiten da, ondo hidratatzeaz gain”. Parrilaren lehen lerrotik irten bazen ere, atzeko neumatikoarekin ez zen eroso hasi Montero eta bosgarren postura jaitsi zen; baina zazpigarren itzulitik aurrera bere ohiko gidaritzari eutsi zion eta, amaierarako bi itzuliren faltan hirugarren kokatu zen, proba postu horretan amaitzeko. “Alexis, Manel, Ramon eta Arantzazuk osatzen duten taldeari” eskerrak emateaz gain, Eibarko pilotoak kontuan ditu baita bere jardunean laguntzen dioten “babesle guztiak”. Iazkoa lortu dezake berriro.

Avia Eibar Rugbyko lehen taldeak esperientziadun jokalaririk fitxatu ditu gorengo mailari aurre egiteko

>>> Emakumezkoen Iberdrola Ohorezko A Mailara igoberri den taldeak beste hiru jokalaririk ekarri ditu asko eskatuko dion maila berriari egokien erantzuteko asmoz. Leire Muñoz irundarrak aurretik ere jokatutako Eibarrekin (bere lehenengo denboraldian, 16 urterekin) eta ondoren Hernanin eta El Salvadorren osatu ditu hiru hiru denboraldi, azkena Ohorezko A Mailan. Euskadi-

ko zazpiko selekzioarekin eta Gaztela-Leongo hamabostekoarekin ere jokatu du. Maitane Ibañez 24 urteko donostiarrek ibilbide laburragoa du errugbian eta Eibarren ikastera datorrela aprobetxatuko du hemen jokatzeko. Lea Etxebarrieta hondarribiarra hiruretan beteteranoena da, 29 urterekin, eta Irun-Hondarribiko Txingudin hainbat denboraldi egin zituen, gero Madrilgo Cisne-



ros taldean bi denboraldi egin aurretik. Txingudira bueltatuta, formazio lanean jardun du azken aldian, harrobiaren mesedetan. Cristina Guntin Ei-

bar Rugby Taldeko prestatzaileak eta bere lan-taldeak gogor dihardute lanean estatuko aurkari gogorrenak aurrean izango dituztela jakinda.

Waterpolistak bigarren nazionalera igotzeko play-offaren zain



>>> Urvat-Urkoitronik Eibarko waterpolo klubaren senior mailako gizonzkoen lehen taldeak, bigarren urtez jarraian Euskal Herriko liga irabazi eta gero, bigarren nazional mailara igotzeko play-offa jokatu beharko du. Hori dela-eta, Mutrikuko igerileku naturalean dihardute entrenatzen, Davide Cerchi prestatzaileak dioen moduan, “segurtasun osoz eta distantziak gordez”. Atsedean gutxi, beraz, hain maila bikaina erakutsi duen taldeko jokalarientzat.



Eibar FT-k aurrendenboraldia hasi zuen eguaztenean

>>> Irailaren 5ean hasiko du Iberdrola Liga gure herriko talde igoberriak eta, erronka berri horretan maila emateko asmoz, Iker "Triki" Dorrnoren neskek astelehenean egin zituzten lehen saioak Unben. Oraindik plantilla guztiz osaturik ez badago ere, hainbat fitxaketa egin dituzte dagoeneko; aldi berean, azken denboraldiko emaitza bikainak kontuan hartuta, taldeko beste hainbatek kontratua berritu dute oso interesgarria izango den denboraldi berrirako. Lehen Maila horretan 18 talde izango dira oraingoan, pandemiaren ondorioz bertan behera

lagatuko txapelketan inork ez duelako maila galdu eta, bestalde, Eibarrekin batera Badajozeko Santa Teresa ere igo delako. Real eta Athletic-ekin batera, eibartarrek euskal hirukoa osatuko dute, eta eurekin izango dira Bartzelona txapel-duna, Atletico de Madrid, Real Madrid talde berria (orain arte Tacon zenaren egitura bereganatu du), Levante, Valencia, A Coruñaiko Deportivo Abanca, Rayo Vallecano, Madrid, Sevilla, Betis, Huelvako Sporting, Espanyol, Tenerife, Logroño (2016tik bertan jokatzeko Lorena Valderas eibartarrak) eta aipatutako Santa Teresa.



Vitoriak 3. Mailan jarraituko du

>>> Fagoagak entrenatzen duen taldeak ezin izan du maila igo. Aurreko asteburuan Leioan jokaturako partiduan husna berdindu zuen Sestaorekin, baina kanporaketa bereziko araudiei jarraituz irabaztera behar-

tuta zegoenez partidua (Sestao aurretik zuelako sailkapenean liga eten zutenean), penalti jaurtiketa barik kanpoan geratu zen. Eibar FT-ren filialak zorte hobearen bila ekingo dio 2020-2021 denboraldiari.



Somos Eibar itxaropentsu hurrengo denboraldiari begira

>>> Lander Casado eta Ander Ballesteros gure herriko eskubaloitako klubeko lehen taldera bueltatuko dira, modu horretan Aitor Telletxeak eta Aner Cardok lagatuko hutsuneak betetzeko. Hala eta guztiz, Fernando Fernandez entrena-tzaileak lehen lerroko jokalaribat botatzen du faltan eta "litekeena da Telletxea gurekin izatea". Bestalde, Espainiako Federazioak 23 urtetik azpikoe-kin eta jubentiaekin parte hartzea baimentzen duenez, Eibar Eskubaloitako talde nagusiak aurreko urteotan hasitako gazte-

tze bidetik jarraitzeko asmoa du. Horrela, Somosek Andoni Yarza, Jokin Aja eta Markel Valenciano jubentia eskribatuko ditu, Haritza talde filialetik datozen beste bost jokalarirekin batera: Somosekin izango dira baita Unax Simon, Mikel Oregi, Ander Arrieta, Aitor Umerez eta Jorge Martinez. Denboraldi berriari begira, taldeko teknikoek "Somos aurreneko zortzien artean sailkatzeko aukera" duela uste dute. Aurkariak ere azken denboraldiko berberak izango dira, Navarrete Errioxako taldearekin batera.



Eibarrek bat egin du Getariarekin saskibaloia indartzeko bidean

>>> Avia Eibar Saskibaloitako Getariako Keta Sharks klubarekin akordioa hitzartu du getariarrak bere kirol egituran integratu eta, horrela, hurrengo denboraldirako liga autonomikoan lehiatzeko aukera izateko. Egindako mugimendua onuragarria izango da klub bientzat:

eibartarrek bere taldea Ketako jokalariekin indartuz autonomia mailako partidua ekarriko ditu Ipuruako kiroldegira; eta kostaldeko, bestalde, igoera lortzeko aukera zabaltzen zaie Eibarko jokalariei esker, harrobiko katea izatea ezinbestekoa delako helburu hori lortzeko.



MICE taldeak kontzertua emango du gaur Bergaran

Gaur gauean, 22:00etan, hasiko da MICE (Miren Narbaiza Group) taldearen kontzertua, Bergarako Espoloian. Emanaldiak uztaileko barixakuetan garatu den Berumugazikloa itxiko du.

Miren Narbaiza eibartarra Napoka Iria bikoteko kidea izan zen Ander Mujikarekin batera. Elkarrekin bost argitalpen atera zituzten eta ehunka eszenatoki eta bizipen konpartitu, 2017an bikotea desegin zen arte.

MICE Narbaizaren barkarkako proiektu berria da eta bere lehen diskoa Joseba Baleztena (Sexty Sexers, Joseba B. Lenoir) musikari be-

ratarrak ekoiztu du, eta hark egin ditu konposizioen moldaketak. Zortzi kantu bildu ditu diskoan, "egitura klasiko eta dotorezia ilunaz jantzitako abesti bilduma. Erraietatik entzulearengana zuzenki. Rocka abiapuntu, bidaia segurua proposatzen du, atmosfera ilunak, distorsioak, tenpo geldoak, giro arin eta argiagoeekin ahaztu gabe eta ahotsa denaren gidari duela". Taldea honako musikariekin osatu du: Ilargi Agirre baterian, Ibai Gogortza gitarran, Joseba Baleztena bajuan, sintetizadorean eta teklatuetan, eta Miren Narbaiza beragitarra eta ahotsen.

Bertso saioa antolatu dute bihar arratsalderako Sorraluzeko Frontoi zaharrean

Bihar Santiago eguna dela eta, bertso saioa antolatu dute Sorraluzeko Udalak eta Pil-Pilean euskaltzaleen elkarteak. Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Aitor Mendiluze eta Miren Amuriza arituko dira eta gai-emailea Amaia Agirre izango da. Bertso saioa 19:30ean hasiko da Sorraluzeko Frontoi zaharrean eta sarrerak 5 euro balio du (euria egingo balu, saioa antzokian egingo litzateke).

Bestalde, nahi izanez gero internet bidez zuzenean ikusteko aukera egongo da, plaentxia.eus web orrian.



Euskal Herriko Gazte Orkestrak Donostia aukeratu du aurten udako topaketa egiteko

Euskal Herriko Gazte Orkestrak aurten ez du Eibarren egingo udako denboraldia prestatzeko topaketa, oraingoan EGOko kide diren 73 musikariak Donostia elkartuko dira eta. Eguaztenez hasi zuten topaketa eta, abuztuaren 1era bitartean, EAE eta Nafarroako musikari gazteek euskal hiriburuetakoko agertoki nagusietan joko duten errepertorioa prestatuko dute, lehen maila orkestraleko irakasleekin, berriki taldearen zuzendari artistiko izendatu duten Ruben Gimenezen batutapean. Lehen

kontzertua astelehenean emanango dute, Gasteizko Principal Antzokian. Martitzenean, berri, Bilboko Euskalduna Jauregian jardungo dute, uztailearen 28an Donostiako Victoria Eugenia Antzokian eta uztailearen 29an Hondarrribiko Itsas Etxea Auditoriumean. Emanaldi guztiak 20:00etan hasiko dira. Sarrerak antzokien webguneetan eskuratu ahal izango dira, baita www.egofundazioa.eus helbidean ere. Donostiko Musika Hamabostaldiko Inaugurazio Egunean ere parte hartuko du EGOK, abuztuaren 1ean.



Udarako nobedade ugariarekin hornitu dute eLiburutegia

Uda honetan irakurtzeko proposamen ugari gehitu dizkiote eLiburutegiari. Zerbitzu honek oso harrera ona ari da izaten, azken datuen arabera. Izan ere, Euskadiko liburutegi digitalak, eLiburutegiak, 15.196 erabiltzaile berri erregistratu ditu 2020ko lehen seihilekoan, eta 56.366 erabiltzaile ditu jadanik. Erabiltzaile berri horien bi heren baino gehiago (10.000

baino gehiago) eLiburutegira hurbildu ziren konfinamendua aldiaren. Mailegu digitalen kopurua kontuan hartuta, eLiburutegiak urteko lehen seihilekoan 91.881 liburu eman ditu maileguan, 2019ko aldi berean maileguz emandakoa halako hiru. Hala, sei hilean bakarrik, eLiburutegiak nabarmen gainditu du urtebetean sekula izan duen maileguen erregistroa.



Txoria nuen maite. JOXE ARANBERRI

<<< AHOZTAR ZELAIETA • Kazetaria >>>

“Etikoak eta moralak ez diren gauza batzuk norma bihurtzen dira”

Zaldibarko zabortegiak kiratsa igortzen diharduen bitartean, Ahoztar Zelaietak hautsak harrotuko dituen liburua du prest: ‘Zaldibar. Zona cero’. Liburuak irailean ikusiko du argia eta Zaldibarko zabortegian gertatutako irregulartasunak aieratuko ditu.

Zer jaso duzu ‘Zaldibar. Zona cero’ liburuan?

Zaldibarko gertaera nobelatu dut eta ikertzaile pribatu bat da protagonista. Bera autopistatik pasatzen da zabortegia jausten denean eta, gertatutakoarekin aztoratuta eta irratian bi hildako daudela entzutean, ikerketa abiatzen du. Pertsonaia hori erabiliz, hainbat iturrik eman didaten informazioa bildu dut liburuan.

Aste honetan Jose Ignacio Barinaga zabortegiko jabearen atxiloketaren berri izan dugu, besteak beste. Liburuko izen propioetako bat da?

Bai. Liburua irailean kaleratzea pentsatu nuen, hauteskunde ondoen zer bait gertatu litekeela aurreikusitako nuelako (De Miguel kasuaren sententzia ere hauteskunde batzuen ondoen heldu zen). Abuztuan amaituko dut liburua eta azken berri hauek bilduko ditut.

Nolako lotura du Zaldibarko ezbeharrak Eibarrekin?

Zabortegiko akzionista batzuk eibartarrak dira. Izen batzuk atera dira, baina askoz gehiago izan dira akziodunen batzarretan parte hartu izan dutenak. Bestetik, enpresaren ordezkaria Javier Sanchez zen, Iñaki Arriola Eibarko alkate zenean bere idazkaria zena. Gero, akziodun hauek hainbat enpresa izan dituzte eta Eibarren hainbat operazio burutu zituzten, batzuk oso polemikoak, Arriola alkate zenean.

Barinaga Kondia baserrian jaio zen eta ‘Eibarko Kondea’ bezala da ezaguna, eta Arriolak berak publikoki onartu du ezagutzen duela.

Zaldibarko zabortegiari ‘El agujero’ izena eman zioten. Zergatik?

Oso nabarmena da sektore ezberdinetako profesionalak (kamioilariak, ingeniariak, enpresariak, politikariak...) ‘El agujero’ horren berri zutela. Horren inguruko ezagutza transbertsala bazegoen, baina zabortegia jaustean autopista ukituko ez balu eta azpian bi langile harrapatuko izan ez balitu, normaltasunaren barruan jarraituko luke lanean. Baina alarma soziala eta drama pertsonal horiek piztu direnez, gaiari fokua jarri zaio eta hedabideek azterketa zehatza egin dute (Berria, Gara, Argia, El Correo...) alderdi politikoekin batera. Orain ‘El agujero’ albiste da komunikabideetan, baina lehen ere notizia zen, bizilagun eta profesional askok han gertatzen zenaren berri zutelako. Horrek ematen du tristura, horrelako gauza bat gertatu behar izan dela hedabideek eta alderdi politikoek Zaldibarko zabortegian fokua jartzeko.

Zabortegiko jarduna eta kudeaketa ohiko zer bait da mota bereko enpresetan?

Hori normalizazioaren barruan dago. Etikoak eta moralak ez di-



ren gauza batzuk norma bihurtzen dira. Adibidez, zabortegiko akziodunek sozietate harremanak izan dituzte URAn zuzendariarekin, Gipuzkoako Foru Aldundiko ingurumen zuzendariarekin, SPRIko zuzendariorde ohi batekin (Patxi Lopez lehendakaria zenean) eta putetxeke jabeekin. Putetxeena ere normalizazioaren barruan gertatzen da. Eibarren, Ermuan eta abar lizentziak ematen zaizkie, ez da arakutzen emakumeak ondo dauden, hor egon nahi dutelako dauden edo ez, eta prostituzioa gauza normalizat hartzen da. Ez da egon inoiz manifestaziorik Eibarko edo Zaldibarko putetxe baten aurrean, eta putetxeetan gauza asko elkartzen dira.

Putetxeen gaia, narkotrafikoa, ustelkeria... landu dituzu aurretik...

Adibidez, Sebastian Deagra zabortegiko sozioa putetxeen gaia landu nuenean ezagutu nuen eta Josean Tolosa pilotari ohiaren anaiarekin harremana zuen. Josean Tolosa bera ere Jose Ignacio Barinagaren familiaren sozioa izan da eta bere garaian Deban afera izan zuten ingurumen kontu bategatik. Horrelako pertsonaiak tabuak dira, mitoak, eta hori da ‘euskal oasiaren’ blindajea. Horri aurre egitea euskaldunak gure ispilura begiratzea litzateke eta gaitza egiten zaigu. Nahiago dugu ustelkeria, bezelkeria... espainolen arazoak direla esatea.

6	2					5	
	7					6	
		8		4		1	
	8			9	7		
		9	8		2	5	
			3	5			8
		4		3		9	
		3					2
	5						1 3

	5		8				9	
2						1		
	6			2	3			5
5			7			3		4
	4		3	6	5		7	
7		6			2			9
6			2	3			1	
		1						6
	2				8		3	

soluzioa

6	2	9	8	7	1	5	3
3	7	1	4	5	6		
1	8	6	5	7	1	2	
8	9	3	2	1			
5	4	7	8	6	2	5	
2	3	5	6	4			8
4	6	2	3	9			
7	3						2
9	5						1 3

SUDOKUAK

soluzioa

2	5	9	8	7	1	6	3
6	3	1	4	5	2	8	
8	6	7	2	3	5	4	9
5	4	3	6	5	7		
7	4	3	6	5	7		
7	6			2			9
6		2	3			1	
	1						6
2				8		3	

Ikastolaren jaialdian egun horretarako prestatutako lana aurkezten dute ikasleek. Ondorengo datuekin, eta gurasoak ikastolara heltzen diren ordenari jarraituz, ahalegindu umearen IZENA eta ADINA asmatzen, ZER MARRAZTU duen eta kartulina ZEIN KOLORETAKOAK den.

1- KOHETEaren marrazkia 11 URTEko mutikoak egindakoa da. Bere gurasoak ez dira izan seigarrenak heltzen, postu horretan LORE bat marraztu duen JUNERenak iritsi baitira.

2- Lehenengo gurasoak heltzen 7 URTE dituen eta kartulina HORIA eraman duen neskatilarenak izan dira. Bera ez da NAHIA; honen gurasoak bigarrenak izan dira iristen.

3- JONEk bere marrazkia kartulina BERDEAN eraman du. 10 URTEko azken bere lagunak kartulina LARANJAN eraman du marrazkia eta bere gurasoak bosgarrenak izan dira heltzen.

4- ZUHAITZAREN marrazkia kartulina MOREAREKIN doa. Ez da 6 URTE dituen AIMAR-ek egindakoa.

5- 5 URTEko mutikoa IBAI da eta bere gurasoak laugarren tokiari heldu ziren ikastolara. Bera ez da izango kartulina GORRIAN dagoen ITSASONTZIAN egilea, 8 URTEko neskatila baizik.

6- IRATIK baserria marraztu du. 9 URTEko beste neskatila batek kartulina MARROIAN egingo du marrazkia eta bere gurasoak zazpigarren izango dira iristen.

7- JULENEK KATUA marraztuko du, baina ez ditu 4 URTE, kartulina URDINEAN marraztu duen neskatilak bezala.

8- MARENEK HEGAZKINA marraztu du. Bere gurasoak ez dira izan azkenak iristen; zortzigarren postu horretan FUKSIA koloreko kartulinan AUTOA marraztu duen mutikoaren gurasoak dira.

1°	2°	3°	4°
5°	6°	7°	8°

LOGIKA

WIKU	WIKUW	WIKUW	WIKUW
WIKU	WIKUW	WIKU	WIKU
W	W	W	W
WIKU	WIKUW	WIKU	WIKU
WIKU	WIKUW	WIKU	WIKU
W	W	W	W
WIKU	WIKUW	WIKU	WIKU
WIKU	WIKUW	WIKU	WIKU
W	W	W	W
WIKU	WIKUW	WIKU	WIKU

soluzioa



TXORIMALO KONTUA

Txorimalo kopuru berbera dago bi irudietan. Hori bai, badira SEI baten bakarrik agertzen direnak, bigarreanean beste SEIK ordezkatu dituztenak.



9 DESBERDINTASUN

5	3	6		9	
9	4		8		
	7	6		1	
		8	9	2	
3					2
		1	3	7	
		6		8	7
		4		1	5
5		8	2	4	

		3		7		1
4						
	2			3		9
1	7		4			
	4	2	8	5	1	6
			1		5	2
	9	2			4	
						6
5		9		3		

soluzioa

7	2	8	4	1	6	9
9	1	6	7	8	5	3
4	7	6	3	2	9	1
8	9	1	5	4	7	3
3	4	2	8	5	1	6
6	7	9	1	3	5	2
1	9	2			4	
5		8	2	4		
6	2	9	7	1	3	

SUDOKUAK

8	2	1	6	9	7	4
9	1	6	7	8	5	3
4	7	6	3	2	9	1
8	9	1	5	4	7	3
3	4	2	8	5	1	6
6	7	9	1	3	5	2
1	9	2			4	
5		8	2	4		
6	2	9	7	1	3	

soluzioa

Eskualdeko herrixetako lau lagun bildu dira Elbarren trago-erdi batzuk hartzeko, 26 guztira. Bakotxaren gatzizena, ofizua, herrixa eta trago kantidadia dakazue asmatzeko.

- 1- Batek zazpi txikito hartu ditu.
- 2- Barrenderuak Ezkutazulok baiño txikito bat gehixago hartu dau.
- 3- Markiñakuak Kakapaxori hartu detsa aurria.
- 4- Mariñelak bere itsas-abenturak kontatzen jarraitzen dau egun argiz be.

- 5- Txitzalapur 13 urte zittuanetik bizi da bere herrixan.
- 6- Elgoibarkua eta sei txikito hartu dittuanak batera jua dira komunera.
- 7- Plaentxiakuak barrenderuak baiño bi trago gehixago hartu ditu.
- 8- Poltxoniok pentsatzen dau sei trago hartu dittuanak ez dabela kontrola pasauko.
- 9- Txispagiflak Markiñakuari irabazi detsa edaten.
- 10- Ermukua kaka-larrixarekin dabil.
- 11- Kaxagifia eta bost txikito hartu dittuana abesten hasi dira honzekero.

LOGIKA

5	MARKIÑAKUAK	KAKAPAXORI	TRAGO	OFIZIUA
6	ELGOIBARKUA	ELBARREN	TXIKITOK	BARRENDERUAK
7	PLAENTXIAKUAK	MARKIÑAKUAK	TRAGO	OFIZIUA
8	ELGOIBARKUA	ELBARREN	TXIKITOK	BARRENDERUAK
11	KAXAGIFIA	ELBARREN	TXIKITOK	BARRENDERUAK

soluzioa

GATXIZENA	OFIZIUA	HERRIXA	TXIKITUAK



10 DESBERDINTASUN

	1	4	9	6			5
		6			8	4	
	5						1
8				9			
	4						2
				3			6
1							7
		5	7			1	
	2			1	5	9	3

			2				
5	1		4		9	2	
	9		5	8	1		4
1		3					8
2						7	5
	5		6	2	4		9
		1	8		7		5
				5			

soluzioa


6	5	4	9	2	1	3	7
2	1	4	9	2	5	8	6
6	9	8	7	5	1	4	3
8	2	3	6	1	5	9	7
4	5	1	8	7	9	2	6
7	1	6	5	3	2	4	8
1	8	2	7	9	6	5	3
3	6	7	5	1	4	2	9
5	9	3	8	6	7	1	2

SUDOKUAK


soluzioa

6	4	9	5	1	2	7	8
5	1	2	8	6	4	9	3
1	8	7	9	5	3	2	6
8	2	3	6	1	5	9	7
4	5	1	8	7	9	2	6
7	1	6	5	3	2	4	8
2	8	3	7	9	6	5	1
9	6	7	1	4	8	3	5
3	9	8	2	6	7	1	4

LABIRINTOAK



MARGOTZEKO



Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekuak	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

UDAKO ZINEA

22,00ean UNTZAGAN

Uztailak 29
"Jocker"

Abuztuak 6
"Mr. Link. Jatorri galdua"

Abuztuak 13
"Godzilla: Rey de los monstruos"

Abuztuak 20
"Elkano. Lehen mundu bira"

Abuztuak 27
"Erase una vez en... Hollywood"

Eguraldia (euskalmet.net)



Farmaziak

Uztaila

BARIXAKUA 24

EGUNEZ | Zulueta (San Agustin, 5)

ZAPATUA 25

EGUNEZ | Morgado (San Agustin, 3)

DOMEKA 26

EGUNEZ | Castaño (J. Etxebarria, 7)

ASTELEHENA 27

EGUNEZ | Azkue (T. Etxebarria, 4)

MARTITZENA 28

EGUNEZ | Barandela (Z. Agirre, 4)

EGUAZTENA 29

EGUNEZ | Lekunberri (Isasi, 31)

EGUENA 30

EGUNEZ | Elortza (J. Gisasola, 1)

BARIXAKUA 31

EGUNEZ | Iraundegi (Calbeton, 19)

Abuztua

ZAPATUA 1

EGUNEZ | Castaño (J. Etxebarria, 7)

DOMEKA 2

EGUNEZ | Mendinueta (Urkizu, 6)

ASTELEHENA 3

EGUNEZ | Iraundegi (Calbeton, 19)

MARTITZENA 4

EGUNEZ | Zulueta (San Agustin, 5)

EGUAZTENA 5

EGUNEZ | Morgado (San Agustin, 3)

EGUENA 6

EGUNEZ | Castaño (J. Etxebarria, 7)

BARIXAKUA 7

EGUNEZ | Azkue (T. Etxebarria, 4)

ZAPATUA 8

EGUNEZ | Barandela (Z. Agirre, 4)

DOMEKA 9

EGUNEZ | Castaño (J. Etxebarria, 7)

ASTELEHENA 10

EGUNEZ | Iraundegi (Calbeton, 19)

MARTITZENA 11

EGUNEZ | Iraundegi (Calbeton, 19)

EGUAZTENA 12

EGUNEZ | Iraundegi (Calbeton, 19)

EGUENA 13

EGUNEZ | Castaño (J. Etxebarria, 7)

BARIXAKUA 14

EGUNEZ | Castaño (J. Etxebarria, 7)

ZAPATUA 15

EGUNEZ | Castaño (J. Etxebarria, 7)

DOMEKA 16

EGUNEZ | Castaño (J. Etxebarria, 7)

ASTELEHENA 17

EGUNEZ | Castaño (J. Etxebarria, 7)

MARTITZENA 18

EGUNEZ | Castaño (J. Etxebarria, 7)

EGUAZTENA 19

EGUNEZ | Barandela (Z. Agirre, 4)

EGUENA 20

EGUNEZ | Zulueta (San Agustin, 5)

BARIXAKUA 21

EGUNEZ | Castaño (J. Etxebarria, 7)

ZAPATUA 22

EGUNEZ | Castaño (J. Etxebarria, 7)

DOMEKA 23

EGUNEZ | Castaño (J. Etxebarria, 7)

ASTELEHENA 24

EGUNEZ | Castaño (J. Etxebarria, 7)

MARTITZENA 25

EGUNEZ | Castaño (J. Etxebarria, 7)

EGUAZTENA 26

EGUNEZ | Zulueta (San Agustin, 5)

EGUENA 27

EGUNEZ | Morgado (San Agustin, 3)

BARIXAKUA 28

EGUNEZ | Castaño (J. Etxebarria, 7)

ZAPATUA 29

EGUNEZ | Castaño (J. Etxebarria, 7)

DOMEKA 30

EGUNEZ | Barandela (Z. Agirre, 4)

ASTELEHENA 31

EGUNEZ | Lekunberri (Isasi, 31)

Iraila

MARTITZENA 1

EGUNEZ | Lafuente (Sostoatarren, 10)

EGUAZTENA 2

EGUNEZ | Elortza (J. Gisasola, 18)

EGUENA 3

EGUNEZ | Iraundegi (Calbeton, 19)

BARIXAKUA 4

EGUNEZ | Mendinueta (Urkizu, 6)

GAUEZ BETI, 2020an,
Barandela (Ziriako Agirre, 4)



Eibarren badakagu

Denok irabazten dugulako



688 62 76 89

publizitatea@etakitto.eus



Zorion-agurrak ez ditugu bulegoan aurrez-aurrez hartuko

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20 ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon behar da ...eta kitto!-n. Zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak, **MARKEL** (gaur 6 urte betetzen dozulako) eta **DANEL** (abuztuaren 6xan 2 urte egingo dozuz-eta). Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **KOLDO**, hillaren 27xan 5 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat famelixaren eta, batez be, lkerren partez.



Zorionak, **JULE!**, uztailaren 31n 2 urtetxo beteko dozuz-eta. Gure etxeko alaitasuna zara!!! Asko maite zaittugu!



Zorionak, **ENEKO**, astelehenian 10 urte egin zenduaz-en-eta. Musu potolo bat etxekuen partez.



Zorionak, **IZARO**, astelehenian 7 urte bete zenduaz-en-eta. Ondo pasau oporrak eta musu asko famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **SAIOA!** Gure etxeko Bitxitok abuztuaren 7xan 5 urte egingo dittu-eta!! Patxo potolo bat famelixaren eta, batez be, Maialenen partez.



Zorionak, **MARA!** Atzo zure lehen urtekoa bete zenuan. Musu haundi bat etxekuen partez. Maite zaittugu!



Zorionak, **MADDI**, potxoliiii!!! Bixar 5 urte!!! Segi oin arte bezain alaixa izaten!!! Patxo haundi bat etxekuen partez!!!



Zorionak **MIREN** (martitzenian 8 urte bete zenduaz-en) eta **AMAIA** (gaur 7 urte) etxekuen eta kuadrillaren partez. Egoera berezi honetan be ondo ondo ospatuko doguz eta!!

zarelakogara

Izen-abizenak..... Helbidea.....

Tfnoa / emaila..... NAN.....

Jaiotze data..... K/K zenbakia.....

Bazkidetza edo ekarpenak egiteko

NORK	EKARPENA	ERRENTAN ITZULKETA	BENETAKO KOSTUA
Umeak (16 urtetik beherakoak)	5 €	1,5 €	3,5 €
Ikasle, langabetu, jubilatuak	15 €	4,5 €	11,5 €
Langileak	45 €	13,5 €	31,5 €
Beste ekarpen batzuk	160 €	45 €	115 €

* Urteko kopuruak dira

...eta kitto! Euskara Elkarte

Urkizu 11

943 20 09 18 - 943 20 67 76

elkartea@etakitto.eus

Iragarki laburrak


688 62 76 89

publizitatea@etakitto.eus

Iragarki laburrak ez ditugu bulegoan aurrez-aurre hartuko

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

3. LOKALAK

3.1. Salgai

- Garajea hartuko nuke Urki-Txaltxazelai inguruan. Tel. 645-007388. Jasone.
- Garaje itxia salgai Polonia Etxeberria kalean. Tel. 610-835256

4. LANA

4.1. Lan bila

- Neska eibartarra eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduka. Tel. 658-845081.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Esperientziarekin. Tel. 667-060292.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka. Tel. 660-542155.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka. Esperientziarekin. Tel. 642-855788.
- Mutil arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko, eraikuntzan jarduteko eta mendian edo baserrian lan egiteko. Tel. 662-415709.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaindu eta beste edozein lanetarako. Tel. 722-531998. Jesus.
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko: kalera atera, eskolako lanetan lagundu... Tel. 602-353585.
- Emakumea eskaintzen da ileapaindegi-lana egiteko etxez-etxe. Tel. 660-378181.
- Emakume euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Autoarekin. Tel. 657-794652. Nerea.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 604-149786.
- Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Goizez. Tel. 617-571210.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Mendekotasuna dutenekin lan egiteko titulazioa. Externa. Tel. 666-197831.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauz ere. Externa. Tel. 632-576611.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 611-320827.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-170364.
- Neska euskalduna eskaintzen da irailetik aurrera gaixoak edo nagusiak zaintzeko. Urte askotako esperientzia. Tituluarekin. Tel. 667-376212.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Externa. Tituluarekin. Tel. 637-966749.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako egiteko, etabar. Tel. 632-729261.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-204057.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 12 urteko esperientzia eta erreferentziak. Tituluarekin. Tel. 604-120104.
- Emakumea eskaintzen da arratsalde nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 626-197217.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta. Tel. 610-067042.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Esperientzia. Tel. 602-852095.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Interna. Tel. 631-259997.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Interna. Tel. 604-149786.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako edo sukaldako lanak egiteko. Tel. 654-247655.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Externa. Tel. 635-189294.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (titulazioarekin) eta garbiketarako egiteko. 8 urteko esperientzia. Tel. 603-514085.

4.2. Langile bila

- Kamarera/o behar da Tiro Pitxoi jate-txerako. Autoa izatea ezinbestekoa. Bidali curriculumak Eibarko 46 postakutxatilara.
- Astebururako zerbitzaria behar da mahaiak zerbitzeko. Esperientziarekin. Tel. 620-810120.

5. IRAKASKUNTZA

5.2. Eskaintzak

- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira DBH, Batxilergo eta Selektibitate prestakuntzako ikasleei. Antzeko ezaugarriko 4 lagunekoa taldeak gehienez. Gainditu dutenen indize handia. Urte askotako esperientzia. Tel. 615-705945..
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.


5.2. Eskerak

- Irakaslea behar da gaztelarazko klase trinkoak emateko. Tel. 661-874548.

6. DENETARIK

6.1. Salgai

- Institutuko 4. DBHko liburuak salgai. 10 euro bakoitza. 15 euro bilduma direnak. Tel. 667-376212.


688 62 76 89

publizitatea@etakitto.eus

gremioen gida



943-206776



ANTENAK

BALATZ

Instalakuntzak eta konponketak antenak

Bidebarrieta, 37 Tfnoa: 943 20 05 08
balatz@euskatel.net Fax: 943 20 04 94

ELEKTRIZITATEA

egoluz
ELEKTRIZITATEA S.L.

Ego Gain, 9 cc 677 51 24 62
ego.luz@hotmail.com 630 95 73 45
943 20 06 97

IGELTSEROAK



Eraikuntza
Erreformak
Igeltseritza

irazabal

José María Irazabal, S.L.

Zure etxea, bulegoa, tailerra...
aldatzen laguntzen dizugu
etorkizun hobez
goza dezazun

Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnoa: 943-120108
www.irazabal.net

Ego Gain, 2 - Bae **trinmer**

Tfnoa: 943 12 73 80
www.trinmer.com

TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK

THELECEER
TELEKOMUNIKAZIOAK
ELEKTRIZITATEA
ENERGIA BERRITZAGARRIAK



610 532 922 www.thelecer.com

KRISTALAK

olatz etxeberria martinez ARKITEKTOA
olatz@arquitectura-el.com Tel: 649978632

estudio etxeberria

arquitetua, ingeniaria eta pertsonak
enplein eta abiarazteko lukeaketa teknikoak

Melkita, 7 - enena
Tel/Fax 943 70 21 12 www.arquitectura-el.com

ERAIKINEN MANTENUA

I.T.E. INGENIEROS
TÉCNICOS EN
INGENIEROS



AVT ZIBARRA S.L.
Barrena, 6 - behea esk.

ACHA Kristaldegia
VALERIA ERREKATXU, 3-
KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK
info@crystalenciacha.com ERAKUSKETA
W eta faxa: 943 203 903 Arkitektoa Zubion

AROTZAK



aluminiozko eta PVC-ko arotzgia
balta toloak, gortinak, estoreak etabar

Txonta, 30 - 1. eta behea
Tfnoak: 943 12 13 87 www.ulmar.net

ERAKUSKETA
EIBARRIEN, Oteku 26an (Tel. 943 12 74 01)

ERREFORMAK

**ESTUDIOS
ARRILLAGA**

PROIEKTUAK - ERREFORMAK
GREMOEN KOORDINAZIOA

ROSARIO, 15 - ELGOIBAR-

605 713 168 943 744 019

PINTURAK

baglietto
PINTOREAK

Zoru mota guztiak
Pinturak
Dekorazioa

Errebal, 21 www.bagliettoeibar.com
Tel: 943 201 922 bagliettoeibar@kaixo.com

GARBIKETAK

Limpieza
Multiservicio
Eibar

Superficie
mota guztiak
garbiketa eta
mantenimendu zerbitzua

Tfnoa: 943 001 082

Mobila: 688 609 171

www.multiservicioeibar.com Arragueta, 18-2.D



www.kolorlan.com 667 54 89 16



KOLORLAN
PINTURA LANAK S.L.



bista eder

clinica dental · hortz klinika



Elkarrekin berreskuratuko
dugu irribarrea.



bista eder

clinica dental · hortz klinika

Deitu | 943 70 00 82

bista eder, 19 20600 eibar

www.bistaeder.es



bistaeder_clinicadental

